



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2017ko otsailak 9
Ordua: 09:05 – 10:45
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Jose Luis de Valle Duque
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Alazne Lafragua Ureta

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2017ko urtarrilaren 12an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martinez: kontu bat ez daukat oso argi, hots, Molinillo eta Velascoko Dorrea aipatzen dugunean, pleguetan jarriko den izenari buruzko ñabarduraren kontua, nik esan dudan edo Ascenek esan ote zuen.

Ascension Hormazabal Meabe: ez dut gogoan.

Arkaitz San Jose Martinez: Biok hitz egin genuen eta hemen zera irakur daiteke, “pleguak ateratzen ditugunean egiazko izenarekin aterako dugu”, eta ez dut uste nik pleguak ateratzeko eginkizuna eman nionik nire buruari. Ez dakit, ez daukat batere argi, ez dakit.

Joseba Elejalde Ribacoba: minutu erdi itxarotea baduzue, izan ere, ekarri beharreko guztia ekarri dut, baina gauza bat autoan utzi dut. Berehala nator.

Alkatea: aktak zenbakitu egin beharko lirateke.

Alkatea: Beste ezer esateko?

Joseba Elejalde Ribacoba: Hirugarren orrialdean, bigarren orrialdea atzealdetik begiratu, zera irakur daiteke “Joseba Elejalde: Ez da enpresa merkeena ekonomikoki, ekonomikoki enpresa merkeenak neurrigabeko behea aurkeztu zuen”, zera jartzen du, “neurrigabeko behea aurkeztu zuen” eta, berez, “ez zuen neurrigabeko behea aurkeztu” jarri behar zuen. Ondoren, zazpigarren lerroan, “errazena prozedura ireki bat egin” irakur daiteke, eta jartzen du egiten dugu eta, azpian, “Alkatea: berriro diot”, berriro nik hitz egiten dut eta bigarren lerroan “arrazoia badut, kontu-hartzaileak emango dit txostena, eta arrazoirik ez badut ere bai”, berez, “esango dit” jarri beharko luke, izan ere, bestela badirudi arrazoia emango didala nahitaez, arrazoia izan zein ez izan.



Bestelako oharrik egin ez denez, 2017ko urtarrilaren 12an egindako saioko akta bozkatu da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Jose Luis de Valle Duque, EAJ alderdikoa (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

2. 2017ko ekitaldirako hastapeneko Aurrekontuaren hasierako onarpena

Alkatea: 1.810.814,13 euroko aurrekontua da, 2016an baino % 4,64 gehiago, funtsean Tokiko Erakundeen finantzaketa-funtsa (FOFEL) igotzearen ondorioz, inbertsioetara 170.188 euro bideratzen direlarik. Irizpena irakurriko dut.

“2017ko OTSAILAREN 2AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAMENDU INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

2017ko otsailaren 2an egindako saioan, Ogasuneko Informazio Batzordeak, 2017ko ekitaldirako Aurrekontuaren espedientea aztertuta, Udalbatzari proposatu zion hurrengo akordioa hartzea, EAJ taldearen aldeko botoarekin, PP taldearen abstentzioarekin eta EH Bildu taldeak deus esan gabe:

1.- Udal honek 2017. ekitaldirako taxutu duen Aurrekontu Orokorra hasiera batean onartzea. Aurrekontuaren zenbatekoa MILIOI BAT ZORTZIEHUN ETA HAMAR MILA ETA ZORTZIEHUN ETA HAMALAU EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMOKOA (1.810.814,13 €) da, Sarrerren Egoeran nahiz Gastuen Egoeran. Honatx aurrekontuaren laburpena kapituluka:

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Zenbatekoa
I Pertsonal-gastuak	729.517,45
II Ondasun Arrunten Erosketa eta Zerbitzuak	568.652,92
III Finantza-gastuak	0,00
IV Transferentzia Arruntak	321.641,76
V Kreditu Orokorra eta bestelako ustekabeak	14.814,00
VI Inbertsio Errealak	170.188,00
VIII Finantza-aktiboak	6.000,00
IX Finantza-pasiboak	0,00
Gastuen egoera guztira	1.810.814,13

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Zenbatekoa
I Zuzeneko Zergak	469.600,00
II Zeharkako Zergak	26.230,98
III Tasak eta bestelako diru-sarrerak	260.504,95
IV Transferentzia Arruntak	1.038.510,95



V	Ondare-sarrerak	9.967,25
VI	Inbertsio Errealen Besterentzeak	0,00
VII	Kapitalaren Transferentziak	0,00
VIII	Finantza-aktiboak	6.000,00
	Sarrerren egoera guztira	1.810.814,13

2.- Aurrekontuaren espedientean agertzen den Aurrekontua Exekutatzeko Udal Araua onartzea.

3.- Erakunde honen lanpostuen zerrenda onartzea, aipatutako espedientean agertzen dena.

4.- Espediente hori jendaurrera eramatea erreklamazioak egin ahal izateko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako forma eta epeak betez.

5.- Erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikotzat hartzea.

6.- Erreklamazioak jarriko balira, beste akordio bat hartzea hilabeteko epean.

7.- Behin betiko akordioa arauz ezarritako forma eta epeak betez argitaratzea.

8.- Behin betiko akordioarekin batera, Erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.- Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira”.

Alkatea: hori da informazio-batzordearen irizpena. Zerbait esan nahi baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: nik, gure botoa testuinguruan kokatze aldera, gure taldearen iritzia irakurri nahiko nuke. Lehendabizi aipatu behar dut zoritxarren gaurkoan ez dugula hemen aurrekontua azaltzeko saioan adina bizilagun eta, batez ere, bertaratuen artean, EAJ taldearen Udal Batzordeko pertsonarik ez dagoela. Besterik gabe adierazi nahi nuen, gaur baietz, gaur nire liburua irakurtzera natorrela. Liburu horri buruzko iritzia ematen dituzte soilik azaleran erreparatuta, baina edukia begiratu gabe, eta ezin dira edukiaz mintzatu, izan ere, horretaz Alkate jauna arduratu zen bilkura hartan. Eta bigarren kontuak zurekin dauka zerikusia Iñigo, izan ere, agian ezagutzen ez dugun eskumen baten ondorioz, herritar guztientzat irekitako saio bat zela erabaki zenuen, berriro diot, herritar guztientzat, eta EH-Bilduko zinegotziok ez genuen parte hartzeko eskubiderik. Zinegotzi izateak herritar izaera ez duela kentzen ahaztu zenuen, eta gainerakoek adina eskubide dugula gonbidatzen gaituzten Asanblada eta bilkuretan iritzia emateko. Ez zenuen baimendu gure iritzia jendaurrean azaltzea Udal Gobernuak duela zenbait egun deitutako aurrekontuaren proiektua azaltzeko saioan, berriro diogu, ez dakigu nork emandako botere bat zeureganatuz, edo agian zuren aurrean harrokeriaz jokatzeko aukerarekin adoretuta, behin etorriko dira eta... Une hartan, bertan geunden EH-Bildu taldeko zinegotziok altxatu eta joan egin beharko ginateke, baina ez genuen halakorik egin. Badakizu zergatik? Heziketa kontuagatik eta jendartean eserita zeuden pertsonakiko errespetuagatik. Hori bai, antzeko egintzaren bat deitzea erabakitzen duzun hurrengoan, iritzia nork eman dezakeen eta nork ez zuk erabakita, Batzokian antolatu, horrela entzun nahi dutenak soilik entzungo baitute. Eta orain bai, nire liburuaz mintzatuko naiz. “EAJ taldean aurkezten digun aurrekontu honi buruzko lehen gogoeta, bada, aurrekontua eratzerakoan ez dago partaidetzarik inon, eta ez dago horren itxaropenik ere. Ez duzue partaidetza zer den ulertzen, eta ezin da sinetsi zer den ere ez dakizun gauza batean. Partaidetza eztabaida eta iritzia ematea da batez ere, prozesu bat zergatik eta zertarako ematen den azaltzea. Ekarpinak zeren gainean egin daitezkeen eta zeren gainean ez, azaltzea. Eta ondoren, babes gehien duen aukera hautatzea. Horretaz guztiaz deus ez. Aurrekontuarekin egin duzuen oso eskasa da, hainbeste ezen ez baituzue azaldu Herri Administrazio batentzat aurrekontu bat zer den ere. Postontzi bat jarriko dugu eta norbaitek zerbait sartuko du. Beno, kasu honetan helbide elektroniko bat. Eta, jakina, inork ez du parte hartu. Egia da informazio-saio bat deitu duzuela zuen proiektuari buruz, oposizioarekin adostu aurretik, badaezpada, baina informazioa eta partaidetza ez dira gauza bera. Baina, informatzeak



ez du parte-hartzea ekartzen eta, noski, honi buruzko informazioa duten pertsonen galdera deserosoak eginez ez dezatela parte hartu zurtatzen baduzue, euria euri gainean. Finean, Gobernuak taldeak eskuak garbitu ditu, propagandako beste egintza bat gehiago, non oso ongi geratzen den partaidetzaren etiketa ipintzea, baina egiaz ez dira aurrekontu parte-hartzaileak, iradokitzen duzuen moduan. Herritar ahaldunduak nahi baditugu, lehendabizi gauzak beste modu batera egin behar direla ulertu behar da, eta orduan, ziurrenera, jendeak erantzun egingo du. Herritarren pentsaera-aldaketa hori ez da goizetik gauera emango, eta prozesuak progresiboa eta graduala izan beharko du. Haatik, bide horretan aurrera egiteko gakoa borondate politikoa dago, Udal Gobernuak ez duen borondate horretan. Baina aurrekontu-proiektu hau ez dugu gogoko, ez formari dagokionez, ezta edukari dagokionez ere. Gure ustez, herritarrek hurbileko administrazioa agertzen duen Udal bat izatea nahi badugu, zerbitzuetan gehiago inbertitu behar da eta gutxiago zementuan. Eta ildo horretatik doaz egin ditugun ekarpen guztiak. Hori dela eta, aurrekontuaren gainean proposatzen dugun aldaketa nagusiak EH-Bildu taldetik aurrekontu-proiektuan barneratzen diren inbertsioei buruz egiten dugun planteamendurekin du zerikusia. Gastuen kapituluari heltzerakoan askatasun gehiago izatearen alde egiten dugu, eta Udal Gobernuak aurreikusita dituen baina oraindik gauzatzeke dauden inbertsioak, Diruzaintzako soberakinarekin egin daitezela. Bestela, urtero gastuen aukera gehiegi mugatzen arituko gara partida jakin batzuetara, eta ez haiek areagotuz, are, zenbaitetan haiek murriztuz ere bai. EH-Bildu alderditik beste ekitaldi batez berriro gauza bera esaten dugu, hots, azkenik, 2017. urte honetan Udalak diru-laguntzak arautzeko arauzko ordenantza bat izan behar duela, kultur arlokoak nahiz kirol arlokoak, diru-laguntza zuzen edo nominalekin behingoz amaituz, estrategikotzat jotakoak salbuetsita, hitzarmen baten bidez edo beste edozein formula erabiliz finka daitezkeenak. Horri dagokionez, talka egiten dugu aurrez aurre Udal Gobernuak behin eta berriz eztabaida, legezko betekizun hori, atzeratzeko jarrerarekin. Horrenbestez, aurrekontu-proiektuari egiten dizkiogun zuzenketa batzuk ideia horrekin dute zerikusia, hots, zuzeneko laguntzak bazterzea eta, aldi berean, kontrakontu modura, diru-laguntzen kapituluetakoz zenbatekoa areagotzea, interesa duten talde guztiek eta Elkarte guztiek berdintasun-baldintza beretan parte har dezaten. Halaber, zenbait partida, esate baterako, Antzinako Merkatura bideratutakoa, alde zuzenetik gogoetarik egin gabe onartzeko planteamendurekin ezin gara ados egon. Gogoeta hori ez da soilik Udalaren barnean egin behar, haren antolaketan parte hartzen duten eragileekin ere egin beharko litzateke, jakiteko zein merkatu mota nahi dugun. Eta ezin gara ados egon Euskara sustatu eta bultzatzeko aurrekontuan zenbateko jakin bat ipintzearekin, egiaz lan egiteko aukera ematen duen eta gure hizkuntzaren aldeko helburu jakin batzuk dituen baterako lan-mahai bat abian jartzeko interesik ez duzuenean. Aurrekontu horrek zenbaki eta zifrez harago, ez du arimarik. Hori da Gobernuaren taldeak bilatzen duen erosotasun-eremua, kudeatzaile baino ez izatearena, funtzionario baino ez. Ekimena ez ezik, gogoia falta zaie, aurrekontu-partida bakoitzean zifra ipintzetik harago joateko gogoia. Egunero ikusten dugu hori, beren utzikerian ikusten dugu, mahai gainean pilatzen diren gai askotan, nola uzten duten denbora iragaten, Legealdi hau oso luze egingo zaie eta, jakin, gaur bertan esango diegu, ez dezatela EH-Bildu taldearen laguntza izango dutenik pentsatu nahi dutenean erabiltzeko makulu bezala. EH-Bildu taldearekin inolaz ere negoziatu nahi izan ez duzuen aurrekontu baten aurrean gaude. PP taldea duzue lehentasunezko adiskide modura eta berriro proposamenetan ikusi ahal izan da beren laguntza izatea onartu duzuela. Abstentzio batekin edo, behar baduzue, aldeko botoarekin. Berriro diogu, EH-Bildu taldetik bi urteko zuzenkeriazko denbora eman dizuegu aurreko Alkatearen eredu akitua dagoeneko bazter utzita zegoen egiaztatze. EAJ alderdian ekimenik geratzen ote zen, gogorik geratzen ote zen, begietako dirdirarik ba ote zegoen ikusteko, baina argi dago ezetz. Zuen burua estuzetik urrun, gauza bera berriro, betiko kutsu eta maniekin. Arriskatzen ez duen aurrekontu batean aurrean gaude, zenbakiak doitzera mugatzen den aurrekontu baten aurrean, itundutako aurrekontu baten aurrean, eta EH-Bildu taldea osoko bilkuren aretoan esertzen denetik lehen aldiz, kontrako botoa emango diogu aurrekontuari. Horrek guztiorrek Udal Gobernuaren aurkako kritika modura suposatzen duenarekin”.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, erreferentziagatik, Arkaitz, ni ez naiz EAJ taldearen sozioa, ez nago Gobernu taldean, ez nago Gobernuan, ni oposizioan nago. Eta aurrekontuan islatzen dena edo islatzen ez dena aipatu behar bada, uste dut, gutxi gorabehera, zuenean sartu diren partida



berak daudela, guztizko zenbaketan eh?, agian egongo da Alderdi Popularrak aurkeztu duen besteren bat, egia da baita zuzenketaren bat gehiago aurkeztu duzuela. Baina neronek esango dizut, berriro esango dizut zuri, bere garaian ~~XXXXXXXX~~-i esan nion moduan, ni ez naiz EAJ taldeko sozioa. Ni ez naiz EAJ taldeko sozioa, eta zuek egiten duzuen gauza bera egiten dut. Udal honen alde lan egiten dut oposiziotik. Beraz ez deus esan nire botoa jakin gabe, ez dakizu aldekoa botoa emango dudan, kontrakoa emango dudan edo abstentzioa emango dudan, ez egin azkenik inork ezagutzen ez duzuen inguruko berrespenik, izan ere, nik ez dakit zuek zein boto emango duzuen, ez dakit EAJ taldeak zer bozkatuko duen eta, noski, inork ez daki Alderdi Popularrak zer bozkatuko duen, orain arte ez bainaiz mintzatu. Zuk egin duzun moduan, nik ere Alderdi Popularraren bozka ondorioztatuko duten arrazoiak azalduko ditut. "Urtero bezala, EAJ alderdiak aurrekontua aurkezten digu Osoko Bilkuran onartzeko, Udalak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den aurrekontua. Aurtengo aurrekontua joan den urtekoaren kopia makur bat da ia, izan ere, I-etik V-era bitartean aurrekontuan sartutako partidekin aurrekontuaren % 91,61 estaltzen da, inbertsiorako % 9,39 soilik utziz. Urtero gastu arrunt gehiago eta langileen aldetiko gastu gehiago dugu, eta gero eta inbertsio gutxiago. Aurrekontu osoa den 1.810.814,13 eurotik, soilik 170,188 euro bideratzen ditugu inbertsiora. Maniobra-marjinak urriak direla esaten zaigu, eskasak, ezinezkoa dela kostuak murriztea edo diru-sarrerak areagotzea. Baina hori ez da horrela. Berez, aurrekontu hobe bat aurkezteko borondatea eta lan egiteko gogoia izan behar dira. EAJ taldeak berdin jarraitzearen alde egiten du, eta Bilduk langileen aldetiko gastua areagotzen jarraitzearen alde. Bi planteamendu horiek askiek dira Alderdi Popularraren ikuspegitik. Alderdi Popularra aurrekontu honen aurka agertuko da, haren aurka egingo dugu, izan ere, gure ustez, Gobernuaren taldetik trebetasun eskasa edo irmotasun gutxi izan da negoziatzeko orduan. Alderdi Popularretik bederatzi zuzenketa aurkezten dira, nahiz eta askoz gehiago aurkeztu zitezkeen, esate baterako, Aiaraturreko diru-laguntzaren gaia dago, joan den urtean egoera hori aztertzea adostu baitzen, eta urtebete beranduago ez da horri buruzko azterketa txikiena ere egin, eta diru-laguntza aurrekontuaren barnean dago oraindik. Zerk funtzionatzen duen eta zerk ez aztertzeko astia izango da, eta aldaketak planteatzeko. Lehendabizi Alderdi Popularrak aurkeztu eta Gobernu taldeak aintzatetsi nahi izan ez duenaren inguruan hitz egingo dugu. 1. Gurutze Gorriaren eta DYAreneko diru-laguntza. Alderdi Popularraren asmoa berau mantentzea zen. Zergatik? Gobernu taldeak dio zerbitzua ordaintzen dugula asistentzia eskaintzen dutenean. Jakina, ordaindu egiten da, baina larrialdia ez denean, zure etxetik larrialdia ez dagoenean eskatzen duzun edozein anbulantzia bezalaxe, edo larrialdizko lekualdatze bat egiteko eskatzen duzunean. Gure ustez, gure eskualdean ezinbestekoa den zerbitzua ematen duten erakundeak dira, izan ere, eskualdea zabala da eta anbulantzia-zerbitzua garestia da. 600 euroz ari gara hitz egiten. Gobernu taldeak bi erakunde horiei diru-laguntza zuzena kentzea erabaki du. 2. Hitzarmena Aiaraldearekin. Kentzeko eskatzen genuen, 1.500 euro dira. Ez da zilegi enpresa edo hedabide bati finantzazioa edo diru-laguntza ematen jarraitzea eskualdean euskararen erabilera sustatzen duela adierazita justifikatuz soilik. Ez da zilegi soldatak jasotako diru-laguntzarekin estaltzen dituen enpresa bati diru-laguntza ematea. Ez da zilegi inpartziala ez den eta ildo editoriala batere plurala ez duen hedabide bati diru-laguntza ematea. Badira aurrekontuan beste partida espezifiko batzuk Artziniegan euskararen erabilera bultzatzeko. 3. Museo Etnografikoaren partida, baztertzea. Eta azalduko dugu arrazoiak. Alderdi Popularretik beti defendatu dugu Museo Etnografikoaren irekierara bideratutako partida diruz laguntzea, beti babestu dugu Artea Elkarte Etnografikoak eskuzabaltasunez burutzen duen lana, beti defendatu dugu herritar guztion ondarea mantendu, zaindu eta hedatzeko premia. Baina joan den urtean aurrekontuan 29.000 euroko kopurua ezartzen zen Museoa irekitzeko, mantenurako, argirako edota berogailurako jadanik baziren beste partida batzuek aparte. 2016. urtean Artziniegako Udalak Museoa irekitzeko zuzeneko diru-laguntza, 35.000 eurokoa, jaso zuen Arabako Foru Aldundiaren eskutik. Gainera, Museoak Eusko Jaurlaritzaren eskutik beste diru-laguntza bat jaso zuen zuzenean, 30.000 eurokoa. Udalak irekiera horretarako emandako 29.000 euro horiek 12 hilabetez egon ziren bankuan, gastatu gabe, zertan erabili jakin edo adostu gabe. Urtearen amaieran, akordio bidez, diru hori Museoaren 2017ko mantenu-obretara bideratzea erabaki zen. Aurten antzeko egoera dugu parez pare. Aldundiak 35.000 euro bideratuko ditu museoa irekitzeko, eta oraindik Eusko Jaurlaritzako aurrekontuak aurkeztu eta onartzeko zain



gaude, bertara zein zenbateko bideratuko den egiaztatzeko. Alderdi Popularrak ez du nahi gure Udalerako oso premiazkoak diren beste inbertsio batzuetara bideratu daitekeen diru bat tiradera batean izatea berriro. Partida hori bertan behera uztea eskatzen da Eusko Jaurlaritzak zein kopuru bideratzen duen egiaztatu arte, eta horren arabera beste partida berri bat ezar daiteke, beharrezkoa balitz. 29.000 euroz ari gara hitz egiten. Baditugu 1.500 eta 1.800 euroko lanak gauzatu gabe joan den urtetik. Baina ez da ezer gertatzen. Aurten edo datorren urtean egingo ditugu. Peñalvako pista konpontzea ere eskatzen zen. Berria zen, partida berria zen, izan ere, badirudi pista hori ez dela existitzen, ez dela existitu eta ez dela existituko. Ez da lehen aldia Alderdi Popularrak Osoko Bilkurara pista horren konponketaren gaia ekartzen duena. Ulertzen dugu pista hori konpontzeko premia, pasabide kanadarrak ezartzeko premia eta pista eta mendia egokitzekoaazienda askatzeko. Azpimarratu nahi dut pista hori telebista- eta telefono-errepikatzaileak dauden lekuraino igotzen dela, eraikuntza-enpresa bati ematen dio zerbitzua, eta abeltzainek, ehiztariek, barruti modura, basozainek, kirolariek eta Peñalvako mendiaz gozatu nahi duten herritarrek erabiltzen dute. Gobernu taldeak ez konpontzea justifikatzen du pista norena den zehazten den arte, jarrera ulertezina. Baina ulertezina da joan den urtean Alderdi Popularrak bideen inbentario bat egiteko eskatu zuela eta gaurdaino ez dela ezer egin. Eta urtebete barru bideen inbentariok gabe jarraituko dugu eta zein bide ditugun, zein konpondu daitezkeen eta zein ez jakin gabe. Bosgarrena onartutako ordenantzak betetzeari buruzkoa da, kiroldegia erabiltzeagatik tasak kobratzearena. Alderdi Popularretik beti defendatu dugu eta beti defendatuko dugu gure kirol instalazioen erabilera eta gozamina. Kirola sustatzearen alde egiten dugu, baina ez doan. Herritarrek jakin behar dute mantenuak, urak, argiak edota gasak kostu bat dutela. Eta, horrenbestez, Administrazioaren nahiz erabiltzaileen betebeharra da gastu horiek estaltzea. Ezin dugu argiarekin eta gasarekin 11.000, 12.000 edo 15.000 euro gastatzen jarraitu, kostu hori soilik Administrazioaren kontura izanik. Azken batean, nire ustez, kobratu egin beharko genuke edo Udal honek Osoko Bilkura honetan onartutako tasa zoragarriak abian jarri beharko genituzke, martxan jarri. Eta bestela aldatu. Beste zenbaitetan ere errepikatu dut hori. Tasak aldatzea. Tasak jaistea oso handiak direla ulertzen badugu, egokitzea edo bertan behera uztea, baina Udalak hemen onartutako araudia bete dezala behingoz. Nik hemen tasa horiek kobratzeko esaten dut, ez dira tasa handiegiak eta esan dudan guztia estaltzeko baliagarri izango dira, kirolaren mantenu eta kudeaketarako. 6. partida Ekainen partida bat da, hots, Udalarri zerbitzu juridikoa ematen dion enpresa bat. Eta dagoen bezala uzteko eskatzen genuen, 8.037 eurotan. Dagoen bezala uztea. Berez, 10.000 eurora igotzea zen asmoa, une honetan epaiketa ugari ditugulako eta, orain arte haiek arduratu direnez, aurten ere haiek arduratzea uste baitugu egokiena dela. Baina ideia, nire lehen ideia, erabat baztertzea zen. Eta esango dut zergatik. EAJ taldetik partida hori areagotzeko eskatzen zen aurten kontsulta gehiago egingo zirela adieraziz eta ohi baino auzi gehiago izango ditugula. PP taldeak Alkateari eskatu dio Arabako Foru Aldundiak Udalen esku jartzen duen aholkularitza juridikoa erabiltzeko (abenduaren 9ko Diputatuen Kontseiluko 60/2015 Foru Dekretua; ALHAO 152, abenduak 30ekoa), Udalentzat doako zerbitzua baita. Hots, une honetan Artziniegako Udalak 8.037 euro aurreztu zitzakeen Aldundiaren zerbitzu juridikoetara joko balu dituen arazoak planteatzera. Baina ez, ez dugu halakorik egiten, nahiago dugu enpresa pribatu bati ordaintzea, iritzi zalantzazko edo zalantzagabea izan daitekeelarik, eta bada, hor gaude, 8.037 euro gastatuz, esan dudan moduan Udalaren barneko beste lan batzuetara bideratu genezakeen diru bat gastatuz. Aintzatetsi diren zuzenketez ere hitz egingo dut. Erreta Tuterako txirrista bat berritzearena kontuan hartu da. Nekez. Bizpahiru urte daramatzat haren alde borrokan. PP taldea duela zenbait urtetik hona ari da salatzen Erreta Tuterako jolas-zonaldearen egoera kaskarra, eta horrek dakarren arriskua. Azkenik, lortu dugu berrikuntza hori kontuan hartzea, aurrekontuan sartu eta gauzatzea. 3.000 euro dira, ez da suziriak botatzeko modukoa, 3.000. Mendien inguruko ordenantza betetzea, Udal honetan onartutakoa. PP alderdiak proposatu zuen mendien legea onartu zenean Udal honek onartutako kanona onartzea. Kanon hori Arabako Foru Aldundiak aipatu legean proposatzen duen prezioaren erdia da, Alderdi Popularrak ere proposatu zuena, lege hori onartu zenean. Gobernu taldeak aplikatzeko eta Artziniegako herritar guztien interesak defendatzeko konpromisoa hartzen du. Hala izatea espero dut. Hiri-altzariak auzoetan. Alderdi Popularrak oso antzina egindako beste eskaera bat. Alderdi Popular taldetik aspaldi ari gara azpimarratzen



auzoei gehiago erreparatzeko premia eta horiek ahalik eta bizimodu erosoena izateko beharrezkoak diren azpiegiturekin hornitzeko. Sarritan eskatu da bankuak eta, batez ere, paperontziak jartzeko, auzo ezberdinetan. Azkenean hori egin egingo dela esan zaigu. Erreta Tuteran bazter-babesak kokatzea. Dakizuen moduan, Erretara igotzeko azkeneko 100 edo 120 metroak, Udalaren jabetzakoak, ez dira errepide, kalea baizik. Bada, aurrekontuan sartu zen Alderdi Popularrak obra txikietarako zegokion proiektua aurkeztu zuelako eta, gerora, bilkura batean, zenbateko handiagoko obra txikien beste proiektu bat aurkezteko eta hura, bazter-babesa, berezko finantzaketa bidez, 3.000 euroekin, gauzatzeko akordio bat erdietsi zen. Aretxaga saneamendua Hori ere Alderdi Popularrak egindako lanari esker barneratu zen. Joan den urtean PP taldeak idatzi bat aurkeztu zion Udalari, auzotarren kexak jasotzen zituena. Hari esker, dagokion partida barneratu da aurrekontuan. Obra horren barnean parkinga eta autobus-geralekua berritzea sartu dira. 24.000€. Ikus dezakezuenez, Gobernu taldeak aintzat hartu ditu Alderdi Popularraren zenbait ohar eta, beste batzuk, ez. Hasieran esan dudana errepikatzen dut, aurrekontu-gastuaren % 91,61 langileen gastuan eta gastu arruntetan joaten da, eta soilik % 9 da finantzaketa. Ni gastu arrunta jaisten eta inbertsiorako finantzaketa areagotzen saiatuko nintzateke. Horregatik Gobernu taldeari eskatuko nioke ardura gehiagoz eser dadila, talde guztiekin eser dadila, eta udalerrri honetako bizilagunen premiekin bat datorren aurrekontu bat era dadila. Mila esker.

Alkatea: oso ongi. Beno, atalez atal hasiko gara. Arkaitz, zuk esan didazu ea ni nor naizen erabakitzeke nork hitz egin dezakeen eta nork ez. Eta zu nor zara bilkuran non egon daitekeen eta nor ez esateko?

Arkaitz San Jose Martinez: nik ez dut esan nor egon daitekeen, nik esan dut eskertuko nukeela...

Alkatea: Nor zara kritikatzeko zein jende dagoen eta nor ez dagoen? Zer gertatzen da? Ezin dute egon, ala?

Arkaitz San Jose Martinez: noski egon daitekeela. Berez, gogoetaren hasieran aipatu dut "oxala egon balira, izan ere, orduan aipatzen dudana hitz egin zezaketen, esan gabekoa aurreikusita gabe."

Alkatea: oso erraza da kritikatu eta ondoren esatea "izan ere, ez dakit nor etorri da, begira, begira nor etorri den".

Arkaitz San Jose Martinez: ez, ez da etorri direnak...

Alkatea: itxaron. Orain ni ari naiz hitz egiten.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, ados, barkatu.

Alkatea: orduan, hortik hasiko gara.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, bai.

Alkatea: egun horretan "utzi" esan nizun, zuk zinegotzi modura beste foro batzuk dituzulako. Batzordeak dituzu, informazio-batzordeak dituzu, hemen aritu gara hitz egiten, eta Osoko Bilkura ere badaukazu. Egun hura herritarrentzat zen. Eta uste dut hori ere esan nizula. Kontua ez zen egun hartan osoko bilkuratxo bat egitea. Kontua azalpenak eman eta iradokizunak jasotzea zen. Partaidetza-ereduari dagokionez, bada, gaizki dagoela esaten badidazue, agian EH-Bildu alderdiak gobernatzen duen udalerrietan eredu hobeak egongo dira.

Arkaitz San Jose Martinez: ziur.

Alkatea: edo, agian, partaidetza hori, partaidetza-eredu bideratua izango da. Agian hori da balio duen eredu. Zuek gastu arrunta areagotzea proposatzen duzue. Gutxi gorabehera, hori da zuen irizpidea. Eta, gero, aurkeztu zenituzten zuzenketei dagokienez, oker ez banago, aurkeztutakoen artean zortzi hartu dira kontuan. Batzuk zuek proposatu eta onartu egiten direnak, beste batzuk dagoeneko aurreikusita zeudenak, baina hogeitik zortzi. Uste dut asko direla. Kontu batean ez gaude ados bate ere, izan ere, zuek Erretako bazter-babesa instalatzeko diru-laguntza, barkatu, inbertsioa kendu nahi duzue, eta autobus-geralekua handitzekoa eta saneamendukoa ere kentzea. Hori da zuekiko dugun desadostasuna. Berrito diot, eskerrak, eskerrak itun bat dugunik, bestela hemen ederki geundeke. Nola egin den prozesua? Taldeek aurrekontua aztertzeke denbora izan dute, nahi dutena galdetzeko aukera izan dute, elkartu egin gara, Batzordean zuzenketa aurkeztu dituzte, jorratu egin ditugu, proposamenak egon dira eta, esandakoa, Bilduri dagokionez uste dut zortzi edo bederatzita zuzenketa kontuan hartu direla, eta



Alderdi Popularraren taldetik ere zuzenketa ugari hartu dira kontuan.

Alkatea: zehazki, Joseba...

Joseba Elejalde Ribacoba: jaso, jaso, aurkeztu ditudan zuzenketen artean hiru eta beste bi, hau da, hiru. Badirudi...

Alkatea: zehazki, Joseba asko aipatu dituzu...

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, aipatu dut asko direla...

Alkatea: Gurutze Gorria eta DYA erakundearen dagokionez, esan nizun joan den urtetik anbulantzia batek ekitaldi batean esku hartu behar duen bakoitzean ordaindu egiten dugula. Bada, diru-laguntza kendu genuen, izan ere, lehen egiten zena arintzea zen, ea ongi esaten dudan, lehen ez genuen zerbitzurik ordaintzen eta diru-laguntza hori genuen eta orain erabiltzen ditugun zerbitzuengatik ordaintzen dugu. Aiaraldeako partida kentzeari dagokionez, euskarazko argitalpen bat da, eskualdekoa, eta uste dugu mantendu egin behar dela. Museoko partida kentzeari dagokionez, bada Artea elkarte etnografikoak proposatutako inbertsioen zerranda bat museoa gauzatzeko. Halaber, Peñalvako pista konpontzearena aipatu duzu. Jakina, ezin dugu esku hartu ez badakigu norena den titulartasuna.

Joseba Elejalde Ribacoba: esku hartu, esku hartuko duzu.

Alkatea: eta...

Joseba Elejalde Ribacoba: 2017. urterako aurreikusita dituzun pasabide kanadarrak egiten dituzunean.

Alkatea: eta, berriro diot, eta jasotzen diren zuzenketa dira Erretako zabuena, auzoetako hiri-altzariena ere bai, eta ordenantzan dagoen kanonari dagokiona, Foru Aldundiaren arauz datorrena, eta aurten abeltzainekin egon beharko gara nola aplikatu ikusteko. Zerbitzu juridikoaren kontua ere aipatu da. Aurreztu egin genezakeela diozu. Zerbitzu juridiko horrek Aldundiak eman ezin dizkigun zerbitzuak eman eta egiten dizkigu, hirigintza arloko zerbitzuak, aholkularitzakoak, esate baterako, oraintxe bertan pleguak idazten ari gara, eta badakit Arabako Foru Aldundiaren zerbitzu juridikoa areagotu egin dela, baina tokiko 400 erakunde ingururi ematen die zerbitzua, Udalak eta Administrazio Batzordeak zenbatzen baditugu. Esaten duzue, bada, ez da aurrekontu negoziatu bat. Aurrekontu horretan partida, zuzenketa, garrantzitsuenak kontuan hartu dira. Beste batzuk ere. Zuen esanetan, aurrekontu honetako partaidetza-prozesua eskasa da, ziurrenera egongo dira hobeak, pixkanaka hobetuz joango gara, horretan ados gaude. Eta, beno, esan duzue, aurrekontuan kopia bat dela antzematen da, gogoia falta dela, utzikeria dagoela, beno, hori zuen iritzia da. Gu gogotsu eta erabakimenez ari gara lanean, zuei gustatu ala ez. Horixe da.

Arkaitz San Jose Martinez: nik, bi mintzaldiei erantzunez, badakidanez zer esan dudan, eta beste saioan zer esan nuen ere badakidanez, nik ez dut kritikatu jendea ez etortzea, Osoko Bilkura honetara ere etortzea nahiko nukeela baino ez dut adierazi. Eta bestela, idatzita daukadanez, nahi baduzu berriro...

Alkatea: bai, baina esan duzu filiazio politiko jakin bateko jendea etorri zela.

Arkaitz San Jose Martinez: noski, gainera hemen izateaz probestu zirelako, eta ez zait gaizki iruditzen, EH-Bilduko zinegotziak, kasu honetan nik, egindako mintzaldiaren gaineko balio-judizio bat egiteko. Horrenbestez, publikoki hitz egiten badute, nik ere egin beharko dut aipamen bat nik esan dudanari buruz esaten duten horri buruz, gainera esaten dutenarekin ados ez nagoelarik, baina tira, hori nire iritzia da. Egia da beste foro batzuk ditugula aurrekontuaz eztabaidatzeko. Baina, horrek ez digu eragozten, edo ez liguke eragotzi behar, beste foro batzuetan parte hartu ahal izatea. Uste dut herritar izaten jarraitzen dugula. Errespetuz, eta neurri batean esan nahi duzuna ulertzen dut, eztabaida bera espazio horretara ez eramaten ahalegintzen gara, izan ere, ez genuen eztabaida bera espazio horretara eraman, zalantza zenbait adierazi genituen besterik gabe. Zergatik? Lehendabizi, eta hori da hurrenkera kronologikoa, zuen aurrekontu-proiektua herritarren aurrean aurkeztu zelako, gainerako taldeekin eztabaidatu aurretik. Horregatik esan nizun bilkuran, noski, azkenik aurrekontuen proiektua aldatu egiten bada, koherenteena berriro aurkezpena egitea dela, bestela zer gertatzen da, Gobernu taldearen aurkezpenak egin daitezke bakarrik eta ez onartzerik eramango de aurrekontuarena? Horrek agerian uzten du hasieratik gogo gutxi zegoela aurrekontu-proiektu horretan beste alderdi zenbait txertatzeko.

Alkatea: ez, ez, ez, kontua zen iritzi ezberdinak ere jasotzea eta hor zeundeten zuek, zu ere



hor zeuden, bilkurara bertaratutako pertsonak emandako iritzi ezberdinak ere jasotzea, eta horiek aintzatetsi egin ahal zenituzten zuek, eta guk ere bai, guztiok. Zuzenketak egin aurretik.

Arkaitz San Jose Martinez: berriro diot, bide horretan, eta araudian sartzen ez den bitartean, partaidetza-espazioetarako ere eskatu duguna, ez dago inon idatzita mintzaldirik egin ezin dugunik. Horrenbestez, bada, gogoeta egin beharko dugu espazio interesgarriak diren ala ez erabakitzeko, baina edozein kasutan presentzia izanez gero, gure iritziak ematen jarraituko dugu. Jakina, badira beste partaidetza-eredu batzuk esparru ezberdin askotan. Zalantzarik gabe, EH-Bildu taldeak gobernatzen duen udalerrietan badira hemen baino partaidetza-eredu hobeak eta, era berean, egongo dira EAJ taldearen gobernupean dauden udalerririk non hemen baino partaidetza-eredu hobeak dituzten, zalantzarik gabe. Eta ez dago oso urrun joan beharrik, eta partaidetza eta aurrekontuak uztartuz, eskualdean baditugu zenbait kasu, esate baterako, Laudion auzo-asanbladekin, edo Amurrión, non aurrekontuekin lotutako partaidetza-proiektu bat abiarazten ahalegintzen ari diren, bertan zehazten da proposamenak zenbat eta zertarako, zenbat denboran eta nork aurkezten dituzten. Jakina, zuek irakurketa hori egiten baduzue ere, ez dugu kritika hutsala egiten. Gu beti saiatzen gara ekarpenak egiten gure Udalak hartzea nahiko genukeen bidea har dezan. Baina, tira, bozketa egin eta emaitza txarra dela ikusten badugu, bada, kontrakoa botoa eman baino ezin dugu egin. Eta, gero, itunari dagokionez erantzuteko, ez da EAJ-PP ituna, jakina bozketak egiten den arte aukera guztiak dira zilegi, noski guztiok ez dugu beti gauza bera bozkatzeko, eta erantzukizunari helduz gure ideiekin koherentzia mantenduz bozkatzeko saiatzen gara beti, baina kasualitatea da gero, gakoak diren bozketa batzuetan, zer egingo duzuen ez dakizuela esaten diguzuen arren, eta guk zer gertatuko den sumatzen dugunean, bada azkenik gure ustea bete egiten da, eraketarako Osoko Bilkuraren aurretik gertatu zen moduan. Aparteko intuizioa izango dugu nonbait, izan ere, gai askotan botoa zein izango den aurreikusi eta asmatzen dugu.

Alkatea: bada, oker zaude, ikusi duzunez. Osoko bilkuran honetan bi taldeek aurrekontuaren aurkako botoa emango duzue, aurrekoan ere ados jarri zineten Arabako gizarte zerbitzuei buruzko akordioa onartzeko, beraz, a zer nolako ituna.

Arkaitz San Jose Martinez: niri gustatuko litzaidake Josebak muturrekoa ematea gaur aurrekontuaren aurkako botoa emanez, adibidez.

Joseba Elejalde Ribacoba: esan dut, nire mintzaldian esan dut, eh?

Alkatea: Zer da esan duena?

Arkaitz San Jose Martinez: ados, ados, barkatu.

Joseba Elejalde Ribacoba: laugarrenean, barkatu, bosgarrenean "Alderdi Popularra aurrekontu honen aurka agertuko da. Haren aurka egingo dugu, izan ere, gure ustez, Gobernuaren taldetik trebetasun eskasa edo irmotasun gutxi izan da negoziatzeko orduan". Uste dut argi hitz egin dudala mintzaldi honetan. Dena den, beste zerbaiten pentsatzen bazaudete, edo Alderdi Popularra Udala osatu zenetik EAJ taldearen aldamenean eta haren eskura helduta dagoela uste baduzue oraindik, bada, EH-Bildu taldeak arazo larria duela uste dut. Alderdi Popularrak EAJ taldea babestu zuen noski, eta berriro diot, egun hartan errepikatu nuen, nire bizitzako erabakirik zailena zela, EAJ taldeari babesa ematea, baina noski bazegoen horretarako arrazoia, eta hori da badirelako hainbat udal politika non EAJ taldetik hurbilago sentitzen naizen EH-Bildutik baino eta, era berean, badira zenbait politika, Alkateak esan duen moduan, joan den hilabetean gertatu zenez, non zuekin adostasun bat izan dezakedan instituzio goren batetik EAJ taldeak inposatutako arrabol baten inguruan. Hau da, zuek esaten duzue herriarengatik eta herriarentzat lan egiten duzuela, nik ere 17 urte daramatzat horrela lanean, eta norbaitek esan ahal ditu askotan oker jokatu dudala nire botoarekin, ziurrenera, inor ez da perfektua. Baina hala egin badut, egiten saiatzen ari nintzena udalerririk honetako herritarrentzat (eta ez 10, 15 edo 20 herritarrentzat soilik) onena zela uste nuelako da. Nik beti esan izan dut Artziniegan 1840 edo 1860 biztanle garela, aldaketen arabera, baina nik guztiengatik eta guztientzat egiten dut lan, deitzen didan edozein pertsonarentzat, edozein alderdikoa dela ere, Joseba Elejalde hor egongo da, ahal duenean laguntzeko. Beraz, berriro errepikatu nahi dut ez naizela inoren eskuin eskua edo ezker eskua, eta ez naizela aitaren eskuinera esertzen dena. Eskuineko sentitzen naiz, baina ideiarekin muinean. Ados? Besterik gabe. Mila esker.

Joseba Vivanco Retes: nik ñabardura pare bat. Bat, ez dakit Joseba eskuinera esertzen ote



zaren, ez dakit zoriondu ala ez, izan ere, Alderdi Popularrak aurkeztu dituen kontuen inguruan esan duzun guzti horretan, onartu dizkizuten guztiei dagokienez, bada, gustatuko litzaiguke aurrekontu honetan Alderdi Popularrari onartu diotenaren zati fimiño bat onartuko baligute.

Alkatea: bada, zirriborroan asko doaz, eh?

Joseba Vivanco Retes: aurrekontu honetan. Kontu horietan guztietan gustatuko litzaiguke guri guzti horren zati fimiño bat onartuko balitzaigu, zenbateko ekonomiko guzti horren zati bat, horregatik zorionak. Ez, ez, zorionak benetan. Izan ere, bertan hiruzpalau inbertsio sartzeari lortu duzu gutxienez, eta hori zaila da aurrekontu batean, oposizioan egonik, 9tik zinegotzi bat izanik eta hori guztiori lortzea. Eta gero Alkatearentzat ñabardura bat, EH-Bildu taldeari onartutako zortzi zuzenketa aipatu dituzu, ez dakit, agian oker egongo naiz, baina aipatu egingo ditut: Zeraobe Institutuan errota baterako proiektuari dagokion partida, 386 eurokoa, EH-Bildu taldetik aurkeztu genuen, EAJ taldeak ere aurkeztu egingo zuen jakina, gerora iritsi zen diru bat izan zelako, EAJ taldeak aurrekontua aurkeztu ondoren jarri behar zena, hots, EAJ taldeak barnean sartuko zuen derrigorrez. Koadrilako berdintasun-plana, Artziniegako Udalak 2.000 euro eman behar zituen, guk barnean sartu genuen. Noski, EAJ taldeak aurrekontu-proiektua aurkeztu ondoren barneratu beharko zuen, Koadrilatik gerora jakinarazi zigun gastu bat izan zelako. Hori Bilduren zuzenketa onartzea bada... jarraituko dut, ikastetxe publikoan propano gasaren gastua murriztea. Ikastetxe publikoan Udalak eta beste diru-laguntza batzuk zenbatuta, oker ez banaiz, 70.000 euro xahutu ditugu, edo ez dakit zenbat den, ikastetxeko leiho guztiak berritzeko. Guk EH-Bildutik uste genuen hori egin bazen, energia-aurrezpen bat egon behar zuela derrigorrez, izan ere, leiho berriak kokatu ziren guztiak, eta horregatik ikastetxe publikoan propano gasaren gastua murriztu zedila eskatu genuen, jakina. 1.000 euro kalkulatu da. Hori horrela ikustea logikoa iruditzen zitzaigun. Bide-ibilbideen seinaleztapena, 1.500 euro. Pentsatu nahi dut EAJ taldeak ez zituela 1.500 euro horiek bere aurrekontu-proiektuaren barnean sartu, ahantzi egin zitzaizolako.

Alkatea: bai, eta gainera, hori hemen, bilkuran, aipatu zen, eta hala da bai.

Joseba Vivanco Retes: halaxe da, ahaztu egin zen, hau da, ez da Bildu taldeari onartzen zaion partida bat, Bilduk 0tik 1.500 eurora pasatzea aurkeztu izan balu bezala. Eta gero bosgarrena, eta hau onartu egin zaigu, kultura-jarduerentzako diru-laguntzen partida berri bat sortzea proposatzen genuen, 2.000 eurokoa. Partidak berrikusten hasten bagara, esan daiteke, hau dela EAJ taldeak onartu digun bakarra. Kultura-jarduerentzako diru-laguntzen partida berri baterako 2.000 euro. Gainerakoan, EAJ taldeak derrigorrez sartu behar zituen partidak dira, edo gasaren gaia, inora ez doana.

Alkatea: kirol-jarduerentzako diru-laguntzak 2.000 eurotik 4.000 eurora igotzea proposatzen duzue, bada, dagoeneko bazegoen 2.000 eurotik 3.500 eurorako igoera bat, eta hesi arkitektonikoak kentzearekin lotuta ere bai, izan ere, Arteko igoerarako zela zehazten zenuten.

Joseba Vivanco Retes: baina ez zegoen igoerarik.

Alkatea: 2.000 eurotik 3.500 eurora. Partida horretan. Proiektuan dagoeneko.

Joseba Vivanco Retes: Hesi arkitektonikoak kentzeko?

Alkatea: ez, ez. Kirol-jarduerentzako diru-laguntzarako. Hesi arkitektonikoak kentzeari dagokionez esan genuen zuek proposatzen duzuen zehazki berezko baliabideak erabiliz egitea aurreikusten zela.

Joseba Vivanco Retes: ados, baina kirol-jardueren kontu horretan, guk kirolari emateko diru-laguntzen partida areagotzeko eskatu genuen partida zuzen bat baztertzea proposatzen genuelako, txirrindularitzaren gaia hain zuzen, kirol arlokoa den jarduera baterako, baita motor show ekitaldiarena ere, kirol arlokotzat jo daitekeena. Guk partida horiek baztertzea eta kirol-jarduerentzako diru-laguntzen partida areagotzea proposatzen genuen. Jakina, zuek ez dituzue beste horiek baztertu, eta jardueretarako partida areagotzen duzue, ez dakit zein helbururekin. Guk helburu jakin batekin egiten genuen, areagotzeagatik areagotzearekin ez baikoaz inora.

Alkatea: hori jasotzen da, eta baita Aiara txirrindulari elkartearena ere, badakigu arazo bat dagoela jardueraren kalifikazioarekin lotuta, eta jakina ebatzi beharreko arazo bat da. Agian ezezkotzat daukazu, baina filosofia baiezkoa da.

Joseba Vivanco Retes: tira, baietza izango da, baina kontuak begiratzen hasten banaiz, aurkeztu dugunari begira jartzen banaiz, eta azkenean partida bat gehiago onartu diguzuela



ateratzen da.

Alkatea: ikusten duzunez, gehiago duzu. Beno, azken batean ezberdintasuna, hasieran esan dudanarekin jarraituko dut, bazter-babesaren partida mantentzen dugu, Erretan bazter-babesa instalatzekoa, eta autobus-geralekuaren zonaldea eta saneamendua hobetzeko partida.

Joseba Vivanco Retes: baina argi gera dadila “zortzi onartu dizkizuegu” hori, berriro diot, gustatuko litzaidake, gustatuko litzauguke Alderdi Popularrari onartu zaionaren zati ñimiño bat onartuko balitzaigu.

Alkatea: beno, entzun.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, aipamenagatik...

Joseba Vivanco Retes: eta berriro diot, zorionak...

Alkatea: Joseba, egon da azalpena, egon da erantzuna, egon da erantzunaren erantzuna, dagoeneko...

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, baina aipatu egin nau, eta aipatu egin nauenez, erantzun egin beharko dut. Gainera, badut beste zerbait esateko zuk egin duzun azalpenarekin lotuta, Iñigo. Baina, Josebak esaten duenari buruz, bi baino ez dizkidate onartu. Egiaz bi. Bestea dagoeneko onartuta dagoen zerbait onartzea da, mendien ordenantzaarena, bada betearazi. Ez da aparteko kontu bat onartu dudala... Alderdi Popularrak neurrigabe egindako planteamendu bat da. Hemen onartuta dugun legea betearaztea da. Eta beste biak iaztik datoz. Horrenbestez, azken finean, bazter-babesarena eta Aretxagako saneamenduarena, bada, horren tantoa EAJ taldeak hartu nahi izan du beretzat aurrekontuan zuzenean sartuta, baina egia da iaz Alderdi Popularrak gai horren inguruan lan egin zuela, eta bakoitzari berea, dagokionari dagokiona. Besterik gabe. Zuk 2.000 euro diozu, nik 7.000 diot, bikain. Eta horri buruz, dagoeneko amaitu du Josebarekin...

Alkatea: Joseba, kontua ez da golak sartzea, baizik eta elkarlanean aritzea.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dakit golak sartzea ez ote den kontua. Nik esan dizut 17 urte daramatzadala Udan honen alde lan egiten. Eta Ekain zerbitzu juridikoaren gaiari dagokionez, ordenamendutik zerbitzu juridikoa ematen duela diozu. Zerbait berezia izango da, zer egin daitekeen eta zer ez, eta Artziniegan nola jokatu behar dugun, esan ahal digun kabinete juridiko bakarra izango da nonbait. Udal honek aurkezten dituen arloko planak Aldundian aurkezten badira eta Aldundiko teknikariak badira urratsa ematen dutenak edo beharrezko neurri zuzentzaileak egiten dituztenak, nola ezingo digute bada aholkularitza eskaini gai horietan? Nola ezingo digute bada aholkatu, jaunak? Beste kontu bat da nahi izatea, nik ez dakit azkartasunagatik, berehalakotasunagatik edo lehen aipatu dudan moduan Ekainekoak oso ongi ikusten ditugulako, guztiak oso jator ikusten ditugulako, minuta bat ordaintzen jarraitzen diogu kabinete juridiko horri. Baina Aldundiak Tokiko Erakunde eta Udarentzat berezko zerbitzu juridiko bat badu espresuki, bada saia gaitezen haiekin lan egiten eta Artziniegako Udarentzat izan dadila zerbitzu hori, ez dut esango doakoa, agian noizbait kanpoko zerbitzu juridiko batera jo beharko baita, enpresa batera, baina ahalik eta ekonomikoena izan dadila.

Alkatea: Udalaren eguneroko jarduna ikusita, gaur egun zerbitzu hori ezinbestekoa da. Beharrezkoa da, eta berriro diot, Aldundiaren zerbitzu juridikoak ez du estaltzen. Beraz, besterik gabe, bozketa egingo dugu.

Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderdikoak (4);

Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

3. Zerga jakin batzuk ikuskatzeko Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmenak onartzea



Alkatea: helburua Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ikuskatzeko lankidetzaz hitzarmena onartzea da. Hemen, igorri genuen dokumentuan, Ondasun Higiezinaren Zerga eta landa izaerako lurren balioa areagotzeko buruzko zerga kudeatzeko informazio-trukea ere barneratzen zen, beraz, agian akordioa ikusita, bi horiek onartuko ditugu, ezta? Kontua da akordioan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Ogasun Sailak ikuskatzeko lankidetzaz hitzarmena soilik aipatzen dela. Ez da Ogasun Higiezinaren Zergaren eta landa izaerako lurren balioa areagotzeko buruzko zergaren kudeaketarako informazio-trukeko hitzarmenik aipatzen.

Eragozpenik duzue bigarren hitzarmena gaineratzeko, informazio-trukeari dagokiona, OHZ eta landa izaerako lurren balioa areagotzeko buruzko zerga kudeatzekoa, edo beste osoko bilkura baterako utziko dugu?

Ascension Hormazabal Meabe: Horrek ez du zerikusirik izango Katastrofik kendu dizkiguten datuekin? OHZ kudeatzeko informazio-trukea bada.

Joseba Vivanco Retes: zuk zalantzak badituzu...

Alkatea: irakur dezagun irizpena eta lehen hitzarmena onartuko dugu.

“2017ko OTSAILAREN 2AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAMENDU INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Berezko bitartekorik ez izatean, eta Udal honetako zerga, kreditu eta eskubideak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko eraginkortasun handiagoa izateko xedez, komenigarritzat jotzen da Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailetik igorritako lankidetzaz hitzarmenak sinatzea.

***Ikusirik** aipatu Hitzarmenak, Tokiko Ogasunak arautzeko uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 8.1. artikuluan eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985eko Legearen 7/1 Legeko 47.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*2017ko otsailaren 2an egindako saioan Antolamendu Informazio-batzorde honek guztion adostasunarekin erabakitzen du eta Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:*

***LEHENA.**- Arabako Foru Aldundiarekin Lankidetzaz hitzarmena sina dadila onartzea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ikuskapena Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egin dezan.*

***BIGARRENA.**- Alkatetzari eskumena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazio oro sina dezan.*

***HIRUGARRENA.**- Akordio honen ziurtagiria helaraztea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zergari buruzko Araudi Zerbitzuari, ezagutu dezan eta dagozkion ondorioetarako”*

Alkatea: Ezer esateko? Bozkatzeko ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH-Bildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

4. Izapideen eskuliburuaren eraketa onartzea.



Alkatea: hau udaletxeko langileek egingo duten ikastaro baten barnean kokatzen da, eta puntuetako bat korporazioaren aldetik izapideen eskuliburu bat eratzeko konpromisoari buruzkoa da, beraz Irizpena irakurriko dut.

**“2017ko OTSAILAREN 2AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAMENDU INFORMAZIO
BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

Ikusirik izapideen Eskuliburua eratzeko akonpainamendu bidezko prestakuntzarako EUDEL-HAEE 2017 programa berria.

Ikusirik akonpainamendu-prozesuaren helburua bederatz hila beterako aurreikusitako epealdiaren amaieran Udal parte-hartzaileak izapideak berrikusi, arrazionalizatu eta sinplifikatu izana eta bere izapideen eskuliburua idatzi izana direla.

*2017ko otsailaren 2an egindako saioan Antolamendu Informazio-batzorde honek guztion adostasunarekin erabakitzen du eta Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:*

LEHENA.- *Izapideen Eskuliburua eratzeko prestakuntza eta akonpainamendurako programan parte hartzeko atxikimenduen protokoloa onartzea, EUDEL-HAEE 2017 Programaren barnean.*

BIGARRENA.- *Udaleko Alkatea den Iñigo Gomez Unzueta jauna, proiektuaren arduradun politiko modura izendatzea.*

HIRUGARRENA.- *Proiektuaren arduradun Tekniko modura M^a Ascension Hormazabal Meabe eta Pilar Font Quiles izendatzea.*

LAUGARRENA.- *Izendatutako pertsonen programan barneratzen diren jarduera presentziazko eta online bidezkoetan parte har dezatela erraztu eta bultzatzea.*

BOSGARRENA.- *Programan ezartzen diren lanketak garatu eta gauza daitezela bultzatzea, prozesua garatzea ahalbidetzen duten esku-hartzeak bultzatuz eta garatuz.*

SEIGARRENA.- *500,00 euroko zenbatekoa ordaintzea Prestakuntza eta akonpainamendu Planaren matrikulazio kontzeptuan”.*

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue? Bederatz hila beteretan udal izapideak normalizatuta izatea espero dugu. Webgunean, guztiontzat eskuragarri, eta jende orok jakin dezan udal izapideak zein diren eta nola garatzen diren. Bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH-Bildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

5. Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako Euskal Udalerrien Sarerako atxikimendua onartzea

Alkatea: proposamena Berdinsareara atxikitze dokumentua da, Eudelek helarazten duen agiri-eredua da, eta irakurri egingo dut... Ez dugu Irizpena?

Alkatea: orduan, bada, dokumentu luze samarra da, iruditzen bazaizue, ez dut azalpena irakurriko, konpromisoak baizik.



"Euskal Udalerriok HONEN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU:

- 1. Konpromiso politiko sendoa.*
- 2. Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako ikuspegi integrala.*
- 3. Emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzera bideratutako ikuspuntua.*
- 4. Prebentzioa lehenesten duen ikuspegia.*
- 5. Emakumeen aniztasunarekiko errespetua eta balioespena.*
- 6. Berdintasuna bultzatzera eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak laguntzera bideratzen diren bitartekoen erabilera baterako baten borondatea.*
- 7. Erreferente izateko asmoa, ez soilik Udalentzat, baita emakumeentzat ere.*
- 8. Esku-hartzeetan etengabe hobetzeko premia.*

Eta KONPROMISOA hartzen dugu Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarean modu aktiboan parte hartzeko, helburu hauek izanik:

- 1. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzen laguntzea.*
- 2. Tokiko eremuan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzera eta emakumeenganako ezberdintasunak eta indarkeria baztertzera bideratutako programa eta jarduerak burutu daitezela bultzatzea, 4/2005 Legean ezartzen diren esparru eta funtzioekin bat etorritz.*
- 3. Gai horretan, esperientzia-trukea, koordinazioa eta tokiko eremuan ekintzak egiteko orduan irizpideen uztarketa ahalbidetzea.*
- 4. Berdintasunari eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokari dagokionez udalaz gaindi hartutako akordioetako edukiak garatu, zehaztu eta udalerriaren errealitatera egokitzeo lankidetzak-akordioak eta esku-hartze protokoloak bultzatzea.*
- 5. Bultzatzen diren politikak aztertzea eta berdintasunari eta indarkeriaren aurkako borrokari dagokionez hartzen diren legezko neurriei buruzko gogoeta egitea.*
- 6. Udal praktika onak identifikatu eta hedatzea, berdintasunarekin eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokarekin lotuta.*
- 7. Gai honetan oraindik egitura eta baliabide egokiak ez dituzten udalerriekin lanketak dinamizatu eta laguntza eskaintzea".*

Alkatea: horiek dira konpromisoak. Baduzue ezer esateko?

Nik ñabardura bat egin nahiko nuke. Eta ñabardura egin nuen teknikariarekin egon ginenean, izan ere, azken batean plan horiek guztiak oso ongi geratzen dira, oso politak dira, guztiok gatoz bat adieraztean berdintasuna gauzatu egin behar dela eta errealtate izan behar dela, baina ez gara planekin soilik geratu behar, gizarteak erreferentzia izatetik harago, gauzatu egiten dela ikus dezan, lanabesa izan dezan lan egiten saiatu behar gara, eta gizarte hau bidezkoagoa eta zuzenagoa izan dadin. Joan den egunean teknikariak esan zigun gizonentzako ikastaro bat egin zutela eta ez zela gizonik bertaratu, Laudion, eta ikastaroa ematen zuen teknikariak emakumeentzat ireki zuela, eta 18 joan ziren, eta esperientzia ona eta partaidetza handia izan zela esan zuen. Bilduk une hartan eta neronek esan genuen hori huts-egitea zela, partaidetza ona izan zela eta arrakastatsua izan zela esatea, gizoni zuzendutako egintza batek ez duenean espero zen interesa sortzen, eta bilkura horretara gizonik bertaratzen ez denean. Zerbaitek huts egiten du. Urtero egiten ditugu planteamendu berriak, eta teknikariak planteamendu berriak aurkezten dizkigute garatzeko jarduerekin, eta urtez urte ikusten dugu jarduera horiek ez direla herritarrengana iristen. Hemen euskal udalerrien sare batera atxikitzea proposatzen digute, beste diru-laguntza bat eskuratzeko ideiarekin. Guztia lagun daiteke diruz, baina guztia udalerririk honetako auzotarrok ordaintzen dugu. Ezez ez da doako. Atxikipena egiten dugu, diru-laguntza bat jasotzen dugu, eta diru-laguntza horrekin Aiarako eskualdeko lehen berdintasun-plana egin nahi dugu. 18.000€. Eta Aiarako eskualdeko berdintasun-plan hori, Artziniegak dagoeneko berdintasun-plan bat baduenez, erreferentzia modura erabiltzea nahi dugu, Artziniegako udalerrirako bigarren berdintasun-plan modura. Eta nik diot, badakigu premiak berdinak diren Artziniegan, Aiaran, Amurrión edo Laudion? Laudion ikusi dugunez, foro horretan



gizonen partaidetza zero izan zen. Artziniegan ez dakigu, ez baita planteatu. Dirua xahutzea xahutzearen, eta berriro aurrekontuaren gaiari heltzen diot, absurdua iruditzen zait. Artziniegan daukagun berdintasun-plana ez bada kudeatu edo ongi abian jarri ez bada, edo iritsi nahiko genukeen puntura iritsi ez bagara, uste dut bigarren plan bat martxan jartzea, bada, laguntza bat jasoko dugula esanez mozorrotuz, eta laguntza hori Emakundek ematen duela eta 18.000 eurokoa dela kontuan hartuz, baina deus ez dela kostatuko esatea, gure buruari iruzur egitea da. Errealitatearen aurrean begiak ixtea da. Errealitatea da gaur egun... ez dugula gizartera iristea lortzen, ez dugu lortzen jarduera parte-hartzaileak izatea guztion aldetik. Eta horregatik nik berraztertu egingo nuke. Ez xahutu xahutzearen, izan ere, egiten diren plan eta txostenek helburu bat izan behar dute. Eta helburu horretara iriste ez bagara, bi urte beranduago edo bost urte beranduago beste plan bat eginez, ez gara inora iristen. Izan ere, lehenengoa martxan jartzeko gai izan ez bagara, zertarako jarriko dugu martxan bigarrena. Enpresa bat badago, esaten da bost enpresari emango zaiela aukera plan hori egiteko Aiara ezagutzen dutelako, eta berriro diot, ez dira premia berdinak egongo Laudion, Amurrion, Aiaran, Okendon edo Artziniegan. Horregatik abstentzioa emango dut. Abstentzioa emango dut teknikariek diru honek zerbaiterako balio duela erakusten didaten arte. Dirua botatzea ez dela erakusten didaten arte. Diru horrekin, azken batean, jarri nahi ditugun helburuak lortzen direla. Eta errepikatu dudan moduan eta mintzaldiaren hasieran esan dudan moduan, emakume joan direlako egintza ona izan dela, eta pozik eta harro daudela esateak ez dit balio, non eta gizonezkoek zuzenduta egonik, gizonik joan ez garenean.

Alkatea: beno, hemen kontua Berdinsarea sarera atxikitzea da, batez ere, udal teknikari ezberdinen artean esperientziak trukatu eta lankidetzarako sare tekniko bat baita. Horixe da gaur bozkatuko duguna.

Joseba Vivanco Retes: kontua da euskal udalerrien sare horretara atxikitzeagatik Udalak ez galtzea inolako autonomiarik arlo horretan jarduteko orduan askatasuna izateko, hots, Berdinsarea sarean egoteagatik Udala ez dadila han adierazten den guztia, handik erartzen den guztia, zehatz-mehatz aplikatzera behartuta egon, baizik eta Udalak izan dezala bere udal autonomia berezkoa...

Alkatea: lankidetzarako sare tekniko bat da batez ere.

Joseba Vivanco Retes: izan ere, azken batean, jarraibideak goitik iristen dira, kasu honetan udalerrien sare horretatik, eta gerta daiteke Udala ez egotea ados hartako filosofiarekin, helburuekin...

Alkatea: ziurren hobekuntza ekarriko digu eta arlo horretan lan egiten duten Udalen arteko trukea eta lankidetzaren handiagoa.

Arkaitz San Jose Martinez: ados, nik ohar pare bat besterik ez. Oso ados egon naiteke Joseba Elejaldek aipatzen dituen guzetako batzuekin. Haatik, niri halako aholkularitzatan lan egitea egokitu zait eta gutxi gorabehera jarraituko da, ez soilik aholkularitza horietan lan egiten duten teknikarien arabera, baita eskatzen dugunaren arabera ere. Hots, aholkularitza horiek, normalean gainera, koadrila oso baterako kontratatzen direnean, gehien eskatzen dieten udalerririk haietan lan egitea hautatzen dute, izan ere, badakite beste udalerririk batzuetan gutxiago eskatuko zaiela eta hori kopiatu eta eranstearekin aski da. Beraz, izan gaitzen gainean gauden udalerririk horietako bat, eta ez kopiatu eta eranstearekin konformatzen den udalerririk. Eta, gero, bada, lankidetzarako sare teknikoari dagokionez, nik entzun dut hori. Udalsarearekin entzun dut eta entzun dut..., hau da, errentagarritasun handiagoa eman diezagula, izan ere, aurkezten diguzuenekin ezin diogu muzin egin, izan ere, badakigu badirela espazio horietan egoteagatik eta informazioa eta esperientziak partekatzeagatik errentagarritasuna ateratzen ari diren udalerririk. Baina, aipatu behar genuen sare tekniko hori... ez da berdina, baina ingurumenari buruzko beste sare tekniko bat Udalsarea zen eta nik gaur egun, urte eta erdi beranduago, ez dut ikusi inolako esperientziarik gurekin partekatzen ari diren udalerririk aldetik, ez dut ikusi inolako ekarpenik egin digunik. Ez dakit joaten ari garen, ez dakit joaten ari ez ote garen, baina edozein kasutan Udal hau eratu zenean presa gehien zuen kontuetako bat zen, eta hainbat aldiz esan den moduan, izan Berdinsarean, izan Udalsarean edo izan edozein sarean, egiazko errentagarritasuna izan dadila guretzat. Udal txikia izanagatik ez ote dugu gainera besteek bezalaxe inbertitu beharko, edozein ahalegin ekonomiko garrantzitsua baita, bederen



esperientzien bidez, trukeen bidez, ez dago gaizki, baina ez dadila funtsak lortzeko sinadura hutsa izan.

Alkatea: eman diezaiogun aukera bat zalantzan jarri aurretik.

Arkaitz San Jose Martinez: ez, bai, aukerak denak, baina...

Alkatea: bozka dezagun.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (3).

Onartuta geratu da.

6. A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko eraikuntza-lanen ziurtagiriak onartzea.

“2017KO OTSAILAREN 1EAN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia: A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko eraikuntza-lanen 2tik 11ra bitarteko ziurtagiriak onartzea

Ikusirik “A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko lanen espedientea, zeina gauzatzeaz Arabako Foru Aldundia arduratu den “Arabako Foru Aldundiaren eta Artziniegako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegatik (Araba) igarotzen diren gunean, egokitu eta urbanizatzeko eraikuntza-proiekturako” izeneko lankidetzeta-hitzarmenaren arabera.

KONTUAN HARTUZ, A-2602 eta A-4624 errepideak Egokitu eta urbanizatzeko proiektua Artziniegako Udalak onartu zuela, 2015eko ekainaren 1ean egindako Tokiko Gobernu Batzordearen Saioan, 1.549.834,34 euroko zenbateko batekin.

KONTUAN HARTUZ, 2015eko uztailaren 31n (2015-08-12ko 1824 sarrera) Arabako Foru Aldundiaren eta Artziniegako Udalaren artean lankidetzeta-hitzarmena sinatu zela A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegatik (Araba) igarotzen diren gunean, egokitu eta urbanizatzeko Eraikuntza-proiektua gauzatzeko, 2015eko ekainaren 4an egindako ezohiko saioan Udalbatzak hala onartuta, 1.549.834,34 euroko zenbateko batekin, BEZ barne, horrela finantzatuta:

	GUZTIRA
<i>Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Saila</i>	755.755,50
<i>Obra eta Zerbitzuen Foru Plana</i>	230.146,98
<i>Artziniegako Udala</i>	563.931,86
	1.549.834,34

KONTUAN HARTUZ, 2015eko azaroaren 24an (2015-11-27ko 2712 sarrera) Obra Publikoetako Negoziatuak Artziniegako Udalarari jakinarazi ziola Diputatuen Kontseiluko uztailaren 21eko 411/2015 Akordio bidez, obra Construcciones Moyua, S.L. sozietateari esleitu zitzaioela 1.282.177,94 euroko zenbatekoaz (BEZ barne) eta 8 hilabeteko gauzatze-epe batekin.

KONTUAN HARTUZ, 2016ko irailaren 15ean (2104 sarrera) Obra Publikoetako Negoziatuak Artziniegako Udalarari jakinarazi ziola Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako diputatuak irailaren 6ko



789 zenbakidun Foru Agindua eman zuela, A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko aipatu proiektua gauzatzeko epea 2016ko urriaren 21era areagotzeko.

IKUSIRIK, 2017ko urtarrilaren 19an (149 sarrera) Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Zuzendariak 2016ko urtarriletik urrira egindako ziurtagirien kopia igorri zuela, A-2602 eta A-4624, errepideak egokitu eta urbanizatzeko proiektuari, 1.282.107,51 eurokoa, buruzkoak. Halaber, jakinarazten du berehala Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 466.515,19 euroko zenbatekoaz eskakizun bat igorriko diola Udalari, ziurtatutako zenbatekoaren % 36,39ari dagokiona.

IKUSIRIK, 2017ko urtarrilaren 24an (201 sarrera) 2tik 11ra bitarteko ziurtagiri-zenbakien fakturen kopia erregistratu zela.

IKUSIRIK, 2017ko urtarrilaren 25ean (213 sarrera), Finantza eta Aurrekontu Zuzendariak eskatu zuela Udalak 466.515,19 euroko diru-sarrera egin zezala eta ziurtagiriak atxiki zituela, 1.282.177,94 euroko zenbatekoaz.

IKUSIRIK, Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Oreka Sailak "Diputatuen Kontseiluaren 575/2012 akordio bidez Tokiko Erakundeari onartutako diru-laguntzarekin, Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Oreka Sailaren aurrekontuan kargatuta, hasiera batean 230.146,98 euroko zenbatekoaz eta diru-laguntzaren araudi espezifikoan ezarritako berrikuspen, baldintza eta betekizunen baitan, proiektuaren finantzaketan parte hartzeko hitzarmenaren barnean" eskatzen duela ziurtagiriak udal organo eskudunak onartzea, zenbatekoari so Udalbatzari dagokiona, erakunde onuradun gisa.

IKUSIRIK, zerbitzu teknikoek ezin dutela ziurtagiri horien gaineko txostenik eman, izan ere, kontratazio-prozedura Arabako Foru Aldundiak izapidetu du, eta baita obrak gauzatzea ere, sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren arabera.

Ikusirik, Foru Planaren Zerbitzuak onartutako diru-laguntzaren araudi espezifikoak, zeinaren arabera Udalbatzak onartu behar dituen obrako ziurtagiriak, Lurraldearen Informazio Batzordeak, 2017ko otsailaren 1ean egindako saioan, erabaki du EAJ eta PP taldeen aldeko botoarekin eta EH Bildu taldearen abstentzioarekin, eta proposatzen du Osoko Bilkuran har dadila hurrengo:

AKORDIOA:

Lehena: 2tik 11ra bitarteko ziurtagiri-zenbakiak onartzea, "A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko" obra gauzatzeari dagozkionak, eta baita Construcciones Moyua, S.L. sozietateak igorritako dagozkion fakturak ere, zeintzuen zenbatekoa hemen banakatzen den:

Ziurtagiri-zenbakia	Fra.	Exekuzio materiala+g. g eta BI	Beharpena	Aldea	bez	Aurrez kentzekoa	Guztira ordaintzeko
2	16/CMSL/020 2	5.155,43	890,34	4.265,09	895,67		5.160,76
3	16/CMSL/024 4	17.136,21	2.959,42	14.176,79	2.977,13	5.160,76	11.993,16
4	16/CMSL/035 3	35.664,25	6.159,22	29.505,03	6.196,06	17.153,92	18.547,17
5	16/CMSL/046 1	148.664,94	25.674,44	122.990,50	25.828,01	35.701,09	113.117,42
6	16/CMSL/059 4	283.472,73	48.955,74	234.516,99	49.248,57		134.947,05
7	16/CMSL/078 9	420.705,77	72.655,89	348.049,88	73.090,47	283.765,56	137.374,79
8	16/CMSL/081 4	475.784,41	82.167,97	393.616,44	82.659,45	476.275,89	55.135,54
9	16/CMSL/095 1	605.324,50	104.539,54	500.784,96	105.164,84	476.275,89	129.673,91



10	16/CMSL/107 2	802.218,42	138.543,13	663.675,29	139.371,81	803.047,10	197.097,30
11	16/CMSL/138 8	1.280.784,47	221.191,49	1.059.592,98	222.514,53	803.047,10	479.060,41
							1.282.107,51

Bigarrena: Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundi Txit Goreneko Foru Planaren Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Orekarako Sailari”.

Alkatea: hori da informazio-batzordearen testua. Udalak Arabako Foru Aldundiaren Errepide Sailari bideratutako kudeaketa-gomendio bat dago. Bertan obraren kontratazio eta zuzendaritzaren ardura islatzen da, Arabako Foru Aldundiari dagokiona. Horrenbestez, Osoko Bilkurara ekartzen dira, Foru Planak eskatzen duen atal bat delako. Baina egia da hemen ziurtagiriak teknikarien oniritziarekin datozela eta berez ziurtagiriak onartzen dituen Arabako Foru Aldundiko errepide Saila da. Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: gauza bakarra, beno, gure abstentzioaren arrazoia azaldu nahi dut, noski, gu hasiera batetik obra honen proiektu orokorraren aurka azaldu ginen eta, horrenbestez, ez ditugu ziurtagiri hauek onartuko eta abstentzioa emango dugu.

Alkatea: besterik ez badago, bozketa egingo dugu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (3);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

7. Baso-ustiapeneko 2017. urterako plana onartzea.

“2017KO OTSAILAREN 1EAN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

2017. urterako baso-ustiapeneko urteko plana onartzea.

2017ko otsailaren 1ean egindako saioan Lurralde Informazio-batzordeak guztion adostasunarekin erabakitzen du eta Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

BASO-USTIAPENEN PLANA 2017

Lurralde Batzordearen aldeko txostenaren arabera eta zonaldeko Basozainaren argibideei jarraiki, adierazitako ekitaldi ekonomikorako Udal honetako Baso Ustiapenen Plana igortzen da, eskatuz, antolatzea badagokio ere, onar dadila, berehala gauzatzeko xedez:

LARREEN USTIAPENA

2016ko azaroaren 21ean (11.021 irteera) erakundearen ziurtagiria igorri zen, larreen ustiapenari buruzkoa, bazka-azalera esleitu eta Mendi publikoetan artzaintza baimentze aldera, 2017. urteari begira.

Egutegia: Debekaturik geratzen da artzaintza erabilera Publikoko Mendietan **abenduaren 16tik martxoaren 31ra bitartean, 10 zenbakidun Erabilera Publikoko Mendian** neguko artzaintza salbuetsita, zinetan udal baimena izan beharko baita, betiere, baldintza hauek betetzen badira:



- 1.- Baimendutako espezie bakarria zaldi-azienda izango da.
- 2.- Gehienez baimentzen den karga 70 azienda-burukoa izango da mendi osorako. Horiez gain, Alundiaren 2016ko urtarrilaren 29ko txostenean (223 sarrera) zehazten diren baldintzak bete behar dira.

EGUR-UNITATEAK

2016ko abenduaren 14an zozketatutako egur-unitateak auzotar hauek esleitu zaizkie:

Izen-abizenak	Auzoa	Barrutia
1. INMACULADA YARRITU	SOXOGUTI	EPM 5 pistak (soxoguti auzotik sartuta)
2. GAIZKA IGLESIAS	ERRETA TUTERA	3. ARTADIA
3. IBON VILLOTA	ERRETA TUTERA	2. ARTADIA
4. ANTONIO VILLOTA	ERRETA TUTERA	6. ARTADIA
5. MARISOL SANTA COLOMA SAINZ	ERRETA TUTERA	4. ARTADIA
6. JOSE MANUEL FONTAN	ERRETA TUTERA	5. ARTADIA
7. FELIPA ARETXABALA	SOXOGUTI	Otsatiko lautada (tontorraren aurretik, pistaren eskuinaldera)
8. MARISA DE LAS REIGADAS	KAMPIJO	Gaztainadia (interesdunarekin markatuko da)
9. ALICIA CANIVE	SANTA KOLOMA	LA PIQUILLA 2
10. MARCO ANTONIO SABATER	SANTA KOLOMA	LA PIQUILLA 1
11. ROSENDO VIVANCO	BENTA	Sutegi Xendraren hasieran
12. ITSASO FUENTES	ERRETA TUTERA	1. ARTADIA

EHIZA BARRUTIA

2.706 hektarea dituen "Artziniega" izeneko Ehiza Barrutiaren VI-10065 matrikula-zenbakia berritzea, "Artziniegako Otxati ehizako kirol klubari" alokatua 10 urteko epealdi batez, esleipenaren unetik zenbatzen hasita (2015eko urriaren 13ko 241 Foru Agindua).

LUBERRIAK

Hurrengo luberritzeen ustiapena 5 urtez luzatzea:

Izena	Dokumentazioa	Lursailak
Ignacio Mendieta Ramila	Abeltzaintza eta traktoreen ziurtagiria	Pol4-533/orain mendi diren lursail zatiak.
M ^a Jose Orueta	Nekazaritza ustiapenerako txartela	Pol7- 35 eta 446-f
M ^a Luisa Reigadas	Nekazaritza ustiapenerako txartela. Azienda ziurtagiria (AFA)	Pol 2- 483
M ^a Encina Terreros	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Pol 6- 60 (zatia)
Raul Virizuela	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Pol 3- 288-216-203-185-187-292. Pol4-106
Inmaculada Yarritu	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktoreak	Pol7-139-140A-446Aparte-50 Pol6-8
Ander Ribacoba	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea	Pol6- 125 ^a -b-137(zatia)-138A-B-(zatia)184-48-49-134 Pol7-45
Eulalia Angulo	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktoreak	Pol6-237B-C-13-150
M ^a Luisa Arenaza	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela	Pol2-494 eta Pol-485 eta 486



Alejandro Barcena	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktoreak			Pol4-657(zatia). 33. lursaila, orain mendia
Alicia Canive	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea			Pol4-33, (zattia) orain mendia da.
Miguel Castelo	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea			Pol4 521-524-660 b eta d.
Eusebia Cereceda	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta traktorea			Pol6-237 ^a)51-139 Pol7-169
Patxi Cirion Ugarte	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela.			Pol6-84. Pol5-179 (zattia). Pol4-424
Ernesto Cirion	Nekazaritza Ustiapenerako Txartela eta Traktorea.			Pol2-498(70.000m2 mendia). Pol3-292(33.400m2 mendia)
Rosa Maria Humaran	Nekazaritza Ustiapenerako alta Txartela			Pol3-292 (mendirako)
M ^a Begoña Ibarra	Nekazaritza Ustiapenerako alta Txartela			Pol2-499b)-498-a)-483 a)

EZTI USTIAPENA

Erlategia instalatzeko 250 m2ko aldi baterako okupazioa, "Atxomin" izeneko barrutian, Jose Rey Senin jaunak.

ERABILERA PUBLIKOKO PEÑALVA MENDIAREN OKUPAZIOA - ANTENAK-

- Movistar
- Vodafone. "

Alkatea: beno, ez dut plana irakurriko. Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: guk gauza bakarra, gai bat azpimarratu nahiko genuke, oraintxe erabiltzen ez diren luberrien zerrenda bat egitea eskatuko genuke, edozein arrazoi dela medio erabiltzen ez direnena. Horrela, libre zein dagoen ezagutu eta, ondoren, bada, batzordean aipatu zenaren arabera luberri batzuekin arazoak daudenez, bada, hori ere argitu eta horien egoera zein zen zehaztu dadila.

Alkatea: luberrietan ustiapena 5 urtez luzatzea ipintzen genuen eta 5 urtez luzatzea...

Joseba Vivanco Retes: orduan, gauza bakarra, eguneratu dadila nola dauden egun onartutako luberriak eta libre daudenak, oraintxe bertan Udalak zein luberri dituen erabilgarri jakiteko.

Alkatea: bai, hori aipatu genuen bat zela, hain zuzen, aurten egiten saiatuko garen lanketa bat dela.

Joseba Vivanco Retes: eta kobrantzaren gain ez gara sartuko, izan ere, Josebak alde zuretik aipatu zuen.

Ascensión Hormazabal Meabe: ez, hori ebazpena egiten digutenean Aldundiak zehaztuko du.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, gauza bat bakarrik, aipatu nahi dut luberrien kontuarekin, behin baino gehiagotan aipatu dut hala batzordeetan nola Osoko Bilkura honetan, hartzaileek edo abeltzainek edo luberriak erabiltzen dituzten edo onartuta dituzten pertsonak ordaintzen dutenari buruzko berriak da. Uste dut ordaintzen denaren eta kobratzen denaren arteko aldea handi samarra dela. Artziniegako Udalak diru asko jasotzeari uzten dio eta abeltzainak, azkenik, diru-laguntzen edo bestelako laguntzen bidez, diru askoz ere gehiago jasotzen du, Udal honi hektareako eskaintzen dionarekin alderatuta. Berrikustea besterik ez. Datu modura esango dut berezko lursailak dituen abeltzain bat, lursail motaren arabera, gutxi gorabehera hektareako 80 euroko kobratzen ari dela batez beste. Horrek zera esanahi du, gu 21 kobratzen ari bagara, eta abeltzain batek 4 lursail hektarea baditu luberrietan, bada bere mozkinak kalkulatu dezakezue



gutxi gorabehera, edo laguntzekin ateratzen duena. Lursailaren gaiaz soilik mintzatzen bagara. Eta abeltzaintzaren gaiari buruz hitz egiten badugu, bada, hektarea bakoitzeko azienda larriko buru bat izateko eskubidea du, eta ardien kasuan urte dut bi direla. Horrenbestez, azken finean, alde horretatik ere baditu diru-laguntza eta laguntzak. Hots, ni abeltzaina banaiz eta 10 hektarea baditut, eta Udalaren beste 10 baditut, horrek esanahi du azienda larriko 20 buru izan ditzakedala. Horrenbestez, alde batetik 80 euro inguruko diru-laguntza bat emango didate eta, beste alde batetik, daukadan behi bakoitzeko diru-laguntza bat emango didate. Horrek esanahi du, bada, nik abeltzainekin hitz egingo nukeela hainbat bilkuran adostu izan dugun moduan, haiekin hitz egingo nuke, eta azalpen orokor bat emango nuke, abeltzaintzaren gaiari buruz, luberriei buruz eta mendi publikoari buruz. Erabili egiten diren mendi batzuk ditugu, eta Osoko Bilkura honetan eta batzordeetan beste hainbatetan aipatu izan dugun moduan, ez daude behar bezala egokitura abeltzainei zerbitzua emateko, bertako larreetan animaliak bazkan ibiltzeko. Besterik gabe.

Alkatea: beno, hori egiten ari gara pixkanaka. Bozkatzeari ekingo diogu.

JOSE LUIS DE VALLE DUQUEK OSOKO BILKURA UTZI DU 10:15ETAN.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

8. Arau Subsidiarioen 4. aldaketaren hasierako onarpena.

“2017KO OTSAILAREN 1EAN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

“Kontuan hartuz, Juan Pedro Gorosabel Pando jaunak, Gonzalo Gomez Otxoa jaunaren izenean, 2015eko urriaren 13an (2312 zenbakidun sarrera-erregistroa) Artziniegako Arau Subsidiarioak aldi batez Aldatzeko eskaera aurkeztu zuela, 4-701 lursaila “Trantsizioko Landa Paisaiako Lur Urbanizaezin” modura kalifikatze aldera.

2015eko urriaren 23an (2423 sarrera) Juan Pedro Gorosabel Pando jaunak aipatu lursailaren mugaketaren plano sinoptikoa atxiki zuen, horri dagokionez planeamenduan nola katastroan dagoen dokumentu grafiko ezberdinean.

2015eko azaroaren 30ean udal teknikariak txostena eman zuen, ondorio hauek adieraziz:

“Aurrekoa ikusirik, proposatzen den Aldaketa bideragarria izan daitekeela ulertzen da, indarreko araudian aurreikusitako izapide bidez. Horretarako aurkeztu beharko da

Egin asmo den Aldi bateko Aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua abiatzea eskatzeko “Ingurumen-agiri estrategikoa”.

Behin Ingurumen Organoak (AFA) ingurumen-txosten estrategikoa igortzen duenean, Udalean aurkeztuko da “Artziniegako planeamendurako Arau Subsidiarioak Aldi Batez Aldatzeko Dokumentua” izeneko dokumentazio urbanistikoa, alde aurretiko Ingurumen Txosten Estrategikoan ezarritakoa jasoz”.

2016ko martxoaren 21ean Gonzalo Gomez Otxoak ingurumen-ebaluazio estrategikoa (I.E.E.) abiatzeko Dokumentuaren ale bat aurkeztu zuen; bigarren ale bat aurkezteko eskatu zitzaion, maiatzaren 5ean helarazi zena Ingurumen Sailean txostena egin dezan.



2016ko maiatzaren 17an Juan Pedro Gorosabel Pando jaunak, ingurumen-organoak azaldutako irizpidean oinarrituta, "INGURUMEN AGIRI ESTRATEGIKOAREN" bi kopia inprimatu aurkeztu zituen eta beste bat euskarri digitalean, (1203 SARRERA).

2016ko maiatzaren 23an Ingurumen Sailak jakinarazi zion Artziniegako Udalari 45 egun balioduneko epea zuela egokitzat jotzen zituen oharrak egiteko (Aurretiko kontsultak).

2016ko urriaren 5ean Udalak "Ingurumen iraunkortasunerako zerbitzuak eratutako ingurumen-txosten estrategikoa" jaso zuen, eta urriaren 6an Gonzalo Gomez Otxoa jaunari helarazi zitzaion, "Artziniegako Planeamendurako Arau Subsidiarioen Aldi Baterako 4. Aldaketarako Dokumentuan" bere ondorioak gainera zitzan.

2016ko urriaren 13an Ingurumen Iraunkortasunerako Sailak Ingurumen eta Hirigintzako Diputatuaren urriaren 6ko 244/2016 Foru Agindua (115 zenbakidun ALHAOn argitaratua, 2016ko urriaren 17an) igorri zuen Udalera. Horren berri eman zitzaion Gonzalo Gomez Otxoa jaunari urriaren 19an.

2016ko urriaren 20an (2423 sarrera) Juan Pedro Gorosabel Pandok idatzi bat aurkeztu zuen ale batekin, euskarri informatiko eta fisikoan atxikiz Arauak aldatzeko proposamen hori onartzeko izapide sinplifikatuarekin jarraitzeko beharrezko dokumentazioa", hots:

- Artziniegako udal planeamendurako Arau Subsidiarioak aldi baterako aldatzeko hirigintza dokumentua, 7 folioz osatua.
- Artziniegako udal planeamendurako Arau Subsidiarioak aldi baterako aldatzeko ingurumen iraunkortasunerako txostena, 39 folioz osatua.

Urriaren 26an Lurralde Batzordera eraman zen, eta mahai gainean utzi zen Teknikariak ez baitzuen informazioa eman, izan ere, 4-701 Lursaila "Trantsizioko Landa Paisaiako Lur Urbanizaezin" modura kalifikatzeko Arau Subsidiarioak aldatzeko Proiektua aldatu behar da.

2016ko abenduaren 21ean (2997 sarrera) Juan Pedroren idatzia, esanez izapide honetan eskumena duten administrazio-estamentu ezberdinek eskatutako dokumentazioa aurkezten duela:

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren dokumentua (2 ale).
Arauak aldi baterako aldatzeko hirigintza dokumentua, ohar honekin: (entrega 2016-12-7) (ale 1)
CD kopia

2015eko urtarrilaren 26an, 199 zenbakidun sarrera-erregistroarekin, Udal Arkitekto Aholkulariak aldeko txostena taxutu zuen, zeinaren arabera dokumentuan izapidea abiatzeko nahikoa dokumentazio jasotzen baita, aplikagarri den arloko araudiarekin bat etorritz.

Legez ezarritako izapidea eginik, eta 2016ko otsailaren 7ko Idazkaritzaren txostena ikusirik, Osoko Bilkuran proposatzen da hurrengoa adostea.

2017ko otsailaren 1ean egindako saioan Lurraldeko Informazio Batzordeak erabaki zuen, EAJ eta PP taldeen aldeko botoarekin eta EG-Bildu taldearen abstentzioarekin, eta proposatu zuen har zedila hurrengo

AKORDIOA:

LEHENA. Artziniegako Arau Subsidiarioen Aldi Baterako 4. Aldaketa hasiera batean onartzea, 4-701 Lursaila "Trantsizioko Landa Paisaiako Lur Urbanizaezin" modura kalifikatzeko, Juan Pedro Gorosabel jaunak idatzitako moduan, Ingurumen eta Hirigintza Diputatuaren urriaren 6ko 244/2016 Foru Aginduz onartutako ingurumen-txosten estrategikoko zehaztapenak jasotzen dituen.

BIGARRENA. Artziniegako udal planeamendurako Arau Subsidiarioen aldi baterako 4. aldaketaren proiektua, "Artziniegako udal planeamendurako Arau Subsidiarioak aldi baterako aldatzeko hirigintza dokumentua" izenekoa, Jendartera eramatea, eta informazio publikorako epealdi bat irekitzea HILABETE BATEZ, iragarkiari Udaletxeko ediktuen ohelean, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkarian eta Noticias de Alava egunkarian jarrita. Epealdi horretan zehar gainbegiratu nahi duen orok izango du espedientea eskuragarri, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezte aldera. Halaber, eskuragarri egongo da udaletxe honetako egoitza elektronikoan.



HIRUGARRENA. *Lizentzien onarpena baliogabetzea planeamenduaren xede diren lur-eremu batzuen kasuan, horien zehaztapenek indarreko hirigintza-araubidea aldatzea eskatzen dutenean. Baliogabetze horren iraupena URTE BATEKOA da. Hauek dira baliogabetzeak erasandako eremuak:*

4. Poligonoko 4-701 lursaila.

Baliogabetze hori, hasierako onarpenarekin batera argitaratuko da”.

Ascension Hormazabal Meabe: hemen, akordio honetan, ezinbestekoa da bost zinegotzien aldeko botoa, gehiago kualifikatua behar da.

Arkaitz San Jose Martinez: eztabaidarekin hasi aurretik, kontu bat daukat. Egin beharko genukeenaren, ziurren egingo dugunaren eta guk, talde modura, egingo dugunaren artean. Bada, ez zait iruditzen, uste dut guztiok egin ditzakegula akatsak, baina irregular samarra iruditzen zait Osoko Bilkuraren deialdian arau subsidiarioen 6. aldaketa agertzea, hori baita agertzen dena, eta ez konturatzea akats horretaz, izan ere, pertsona interesdunak ez dira berdinak izango 4. aldaketak edo 6. aldaketaz hitz egiten badugu, berez oraindik abiatu ez dena.

Alkatea: ez dago.

Arkaitz San Jose Martinez: jakina, horregatik diot. Baina, orduan, uste dut Osoko Bilkuran ez genukeela gai hori jorratu behar, izan ere, zuk bandoan gai-zerrenda jartzen baduzu eta arau subsidiarioen 4. aldaketarekin interesa izan dezaketen pertsonak ez badute ulertzen haien intereseko ezer dagoenik, bada, jakina ez dira saiora etorriko. Horregatik esan dut, egin beharko genukeenaz hitz egiten hasi naiz. Kasu honetan gertatzen da, ordea, eztabaida beste Osoko Bilkura batera atzeratzen badugu erasandako interesdun bat egongo dela. Egoera hori ebazteko zain denbora asko daraman interesdun bat.

Ascension Hormazabal Meabe: barkatu, denbora asko darama dokumentazioa ekartzen ez dutelako.

Arkaitz San Jose Martinez: ados, ados. Gainera, ez zaigu horri buruzko dokumentaziorik atxiki. Horrenbestez, guk ez genekien... beno, 6. aldaketari buruz uste genuen, nik jaso dudana dokumentazioan...

Alkatea: nik uste dut lurraldearen informazio-batzordean...

Arkaitz San Jose Martinez: informazio-batzordean bai. Baina informazio-batzordean 4. aldaketa zen, asma genezakeen 4. aldaketa zela, baina nik Osoko Bilkuraren dokumentazioan...

Alkatea: arkitektoaren aldeko txostena zegoen.

Arkaitz San Jose Martinez: baina jaso dugun dokumentazioan nik ez nuen inolako...

Arkaitz San Jose Martinez: baina, ulertzen duzue zer esan nahi dudana? Besterik gabe. Eta, gero, EH-Bilduren botoari dagokionez, azaldu genuen zegoen batzordean, gure ustez arau subsidiarioen goitik beherako berrikuspenera egin behar da, horrenbestez, halako gaietan abstentzioa emango dugu, beste batzuetan ere esan izan dugu. Dena den, jakina, orain erantzukizunagatik, ez dakit.

Alkatea: bozka dezagun. Ezinbestekoa da gehiengo kualifikatua.

Joseba Vivanco Retes: egia esatera, azkenean, hau barregarria suertatzen da. Barregarria da onartzeko bost zinegotzi egon eta, bat-batean, batek alde egitea. Ezinezkoa da. Azkenik egoera batera iristen ari gara Udala honetan, Osoko Bilkura honetan, non EAJ taldeko hiru zinegotzi ari baitira nagusitzen korporazioan bederatzi zinegotzi daudenean. Eta ez. Sentitzen dugu, uko egiten diogu horri, gure abstentzioa mantentzeko gai gara, zerikusirik ez duen pertsona bat izango da kaltetua, hau da, are gehiago, gu aldaketa horrekin ados egon gaitzke erabat, baina abstentzioa eman behar genuen, izan ere, beste batzuetan ere azaldu dugun arrazoi baten ondorioz ari gara abstentzioa ematen. Eta orain zer egingo dugu?

Alkatea: ni ez naiz sartuko eztabaidatzera zergatik egon behar duen pertsona batek Osoko Bilkuran, zergatik pertsona batek alde egin behar duen edo zergatik Osoko Bilkurara etorri ezin duen. Bakoitzak bere arrazoiak izango ditu bertan ez izateko.

Joseba Vivanco Retes: oso ongi, zer egingo dugu? Batek aldeko botoa ematea ikusiz... bada, tira. Zein ondo ematen diren gauza hauek, eta eragindako pertsonari azalduko diogu, begira, EAJ eta PP taldeen botoei esker, bere gauzak egingo direla. Ez, hori ezin da horrela izan, hau barregarria da. Batek aldeko botoa eman eta beste biak abstentzioa emango dugu. Ez baita



lehen aldia gogoan dudanez, ezta joan den legealdian ere, EH-Bildu taldeak aldeko botoa eman behar duena bertan egon behar direnak ez daudelako.

Alkatea: une honetan daudenak daude. Bozkatzeari ekingo diogu.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez, lehendabizi, ez dut bozkatuko, nik aldeko botoa eman behar nuen, baina arrazoi simple batengatik eman behar nuen aldeko botoa, baina bada beste bat, hirugarrena, niri eragiten didana. Eta espero dut orain arte bezain ulerkor izango zaretela, sinpleki izapidearen kontuan eta beste...Nik, azken batean, udalerrri honetako pertsona batek enpresa bat jarri nahi du eta proposatzen den ezerk eragiten ez badio, ingurumenari dagokionez, bada, aldatzea ongi iruditzen zait. Beste gauza bat da hemen eztabaidatzen ari garena, bata falta dela edo bestea falta dela, edo guztiok falta ote garen. Hori jadanik bakoitzak bere baitan egin beharreko eztabaida bat da. Nik aldeko botoa emango dut. Ateratzen bada ongi, eta bestela...

Joseba Vivanco Retes: bai, baina begiratu kontua nola den. Gaur pertsona bat falta izan zaigu. Pertsona hori hemen izan balitz, teorian, gaurko aurrekontua ez zen aurrera aterako. Eta aurrekontua atzeratuta izango genuke. Alkateak egin dezake, Gasteizkoak egin duen moduan, konfiantza-mozio bat aurkez dezake hemen bi astera, baina aurrekontua ez zatekeen aurrera aterako, hasiera batean ez zatekeen aurrera aterako. Bada, jan egin beharko dugu, zuk ere pentsatzen dut jan egin beharko duzula, zure botoa kontrakoa baitzen, eta kito. Baina ez da hau gertatzen den lehen aldia, ez da lehen aldia.

Alkatea: orain egoera hau da...

Joseba Vivanco Retes: ez, badakit zein den egoera bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik uler dezaket zu haserretzea, sumintzea eta, tira, azken finean talde modura asmo bat daukazu...

Joseba Vivanco Retes: jakina...

Joseba Elejalde Ribacoba: eta beste bat hautatzera behartuta zaude udalerrri honetako herritar baten interesagatik, eta hori ere txalogarria da, hori da. Eta dakit aldatzearen, betiere ez badu zuen pentsatzeko moduan eragiten modu bortitzean. Orain lehengora itzultzen gara berriro, esan duzu "Alderdi Popularraren eta EAJ taldearen botoekin", eta berriro diot, ni ez naiz inoren makulua, ez dakizue inork zer egingo dudan.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esan dut onartu egingo dudala antzeko egoera batean nagoelako, antzeko egoera batean dagoen enpresa bat dago, eta, bada, tira, azken batean hau onartzea gustatuko litzaidake, izan ere, udalerrri honetako herritar batentzat onuragarria da, lanpostuak sortzeko asmoa duena, edo aberastasuna sortzeko bederen, enpresa bat sortzeko. Nik ulertu ahal dizuet eta, azken finean, bakoitzak dagokion moduan jarduten du.

Alkatea: gainera, aldaketa honekin helburua lursail baten kalifikazioa baso-planeari jasotzen denera egokitzea da, zein da gailentzen den plana? Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldeko Arloko Plana. Beraz, bozka dezagun.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH-Bildu alderdikoak (2);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, EH Bildu alderdikoak (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

9. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 2017ko 3 eta 17 bitarteko dekretuen berri eman du.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?



Arkaitz San Jose Martinez: bai, beste Osoko Bilkura batzuetan gure desadostasuna erakutsi dugu erregulazio bat egonik udal kirolegiaren erabileragatik ez delako kobratzen, batez ere, ez zelako kobratzen, bada orain esan nahi dugu pozik ikusi dugula urte honetako 9. dekretuan Aiarako Alkatetzatik kirolegia erabiltzea eskatzen dela, eta dagokion tasa kobratzeko akordioa hartu dela.

Alkatea: aurreko Osoko Bilkuran esan genuen, ez zen uneko kontu bat, baizik eta denboran jarraitua izango zela.

Arkaitz San Jose Martinez: aitortzea, besterik ez.

Alkatea: Besterik?

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

10. Udal kudeaketaren kontrola

• Alkatea: ezer baino lehen, aipatu aurreko Osoko Bilkuran Goienkaleko junteo-obraren inguruan galdetu zela, eta batzordean jorratu zela, zehazki, urriaren 27ko 10/2006 kreditua gaitzeko espedientean obraren zenbatekoa jasotzen da, 5.678,53 eurokoa, Goienkaleko 190 metro koadroekin bat datorrena, bertaratutako kontratistetako batek egindako proposamena ikusirik. Eta Dekretu horretan esaten denez, finantzaketa, lehendabizi, filmaren ekoizle-etxearen aseguruaren bidezkoa da eta, bigarrenik, gastuetarako diruzaintzan zegoen soberakin bidezkoa, Eusko Jaurilaritzaren eskutik jaso zen diru-laguntza batek eragindako finantzaketa batekin. Horrenbestez, zati bat estaltzen zen, eta bazegoen estaltzen ez zen beste zati bat, 828,92 eurokoa, Dekretuan esaten denez lotura juridiko mailan finantzatuta geratzen dena. Faktura ez da 5.678,53 eurokoa, izan ere, azkenik ez dira 190 metro koadro likidatzen, 195 baizik. Eta azken faktura 5.827,96 eurokoa da, hots, desbideratzea 149,43 eurokoa da. Hori argitu nahi nuen azken Osoko Bilkuratik. Beraz, nahi duzuen esan dezakezu.

Joseba Vivanco Retes: kontu bakarra, aurreko Osoko Bilkuran egin genuen galderaren erantzuna dela, arreta ematen baitziguen asko, eta herren handia zuela esan nuen nik, izapide osoa nola egin zen ikusita, izan ere, Idazkaritzako txosten batean adierazten zen izapideetan gauzak falta zirela, eta horietako bat obra horren esleipena zen, eta pentsatzen dut oraindik ere ez dagoela. Ez bazen orduan egin, pentsatzen dut ezetz.

Alkatea: ez, ez. Zenbatekoari begiratu, obra txiki bat da.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina beti esleitzen da, eta...

Alkatea: ez, denak ez. Kontratu txikiak ez dira esleitzen.

Joseba Vivanco Retes: gai horrek arreta ematen zigun, baina argituta geratzen da.

• Unai Gotxi Kastrexana: beno, udal kudeaketaren kontrolarekin hasita, aurreko Osoko Bilkuran Eskualdearen eta Artziniegaren baterako saneamendurako mozioa onartu genuen, eta Iñigo esan zenigun Urarekin bilkura bat egingo zenuela gaia jorratzeko. Izan duzu harremanik haiekin?

Alkatea: bada, sarritan saiakera egin ondoren, astelehen honetan.

Unai Gotxi Kastrexana: gaia aldatuz, baina aurreko Osoko Bilkuran ere bai, galde-eskeen txandan, herriko auzotar bat kexu azaldu zen gizarte zerbitzuekin. Izapidetu ote den edo auzotar hari erantzunik eman ote zaion galdetu nahiko nuke.

Alkatea: erantzuna eman zaio, ahoz.

Unai Gotxi Kastrexana: Osoko Bilkuran bertan.

Alkatea: ez, Osoko Bilkuran bertan ez. Berarekin hitz egin dut. Kasu zehatz honetan, eta baita Cecilioekin ere. Oraindik ez dago idatzizko erreklamaziorik eta Ceciliori adierazi zitzaion eman zen azalpena, eta Cecilioen iritzia edo aburua ere helarazi zitzaion pertsona hari.



• Joseba Vivanco Retes: nik badut kontu labur bat. Pentsatzen dut laster udaletxe zaharraren obraren gaia hasiko dela.

Alkatea: bada, ustez, gaur.

Joseba Vivanco Retes: galdera bat baino ez, izan ere, gogoan dut gai horri buruz nik hitz egin nuela iaz batzorde batean, ez dakit Udalak dagoeneko lokalen bat aurreikusi ote duen, espazioren bat esan dezagun, izan ere, azken finean udaletxe zaharra guztia uzteko gordailu modura erabiltzen zen, lekurik ez zegoenean gauzak bertan utzi eta jaialdi eta halakoetan berriro erabiltzeko, eta ez dakit, duela bi hilabete planteatu nuen nik, gogoan dut, esan zen, ez dakit Udalak zerbait begiratu duen, edo pentsatzen dut lekuren bat bilatu beharko dela hura guztia uzteko. Hori errepikatzen dut, izan ere, han gauza asko uzten dira eta gero erabili egiten dira eskura dagoelako, jaialdietan eta halakoetan.

Alkatea: ez, baina gero, lehen solairuak erabilera anitzekoa izaten jarraituko du, hots, une jakin batzuetan, jaialdietan kasu, erabili egin ahal izango da.

• Joseba Vivanco Retes: beste kontu bat. Ez dakit, Dorreko Hotelaren baldintzen pleguaren gaia jorratzeke dago, baina jakin nahiko nuke, igerilekuen baldintzen pleguari dagokionez, izan ere, azkenean atzeratzen ari da gaia eta beti esaten da hurrengoan eta hurrengoan...

Alkatea: begira, egia esan, hitz egin dugu daukagun aholkularitza juridikoa agian ez dela beharrezkoa, eta hain zuzen, lehentasunak ipini behar ditugu eta agintzen dizkiegun lanak atzeratu behar ditugu. Horrela da Joseba.

Joseba Elejalde Ribacoba: horrela da bai, nik egin behar nuen galderetako bat egin du Josebak dagoeneko, oso ongi deritzot, eskerrik asko Joseba. Zein egoeratan dago? Abuztutik bada bikote bat hartzeko prest dagoena. Zain gaude hitz egiteko igerilekuak erabiltzen ari ziren talde guztiekin eta birkokatzeko. Ez dakit haiekin hitz egin ote den, ez dakit nonbait birkokatu behar diren, izan ere, orain, gainera, udaletxe zaharrean erabilera anitzeko espazio bat galduko dugu. Non birkokatu behar dira? Bada, ez dakit. Gaurdaino bilkurarik eta batzorderik izan ez dugunez horretaz hitz egiteko, ez dakit interesdunei esan zaien zein puntutan gauden, hori ere ez, ez dakit interesdunei adierazi zaien oraindik kabinete juridikoak Pleguak noiz egingo zain gaudela iraganean egin genituen akatsak berriro ez egiteko, hori oso ongi baitago, hobetzea. Baina Iñigo ez esan, urtebete honetan, abuztutik hona, ez urtebetean, 9 hilabetetan, ez dugula izan denborarik kabinete juridikoak igerilekuena ateratzeko Pleguak egiteko. Beste kontu batzuekin egon gara, bikain. Oso ongi iruditzen zait, baina uste dut abuztutik hona izan dugula denbora hori egiteko. Are gehiago, pare bat batzordetan aipatu izan dugu eta zure aldetik eta gobernuko taldearen aldetik kokatzeko lan egiten ari zinetela esan diguzue eta, berriro diot, ez diguzue ezer helarazi, ez diguzue ezertxo ere esan, ez duzue beste batzorderik egin, ez duzue batzorderik deitu gaia zertan den adierazteko. Osoko Bilkurara ekarri eta hemengo galde-eskean egin behar ditugu galderak. Beraz, azken batean, esan nahi dizut zuk nahi duzuna esan dezakezula, kabinete juridikoa ez dela beharrezkoa, ados, bat nator, baina bederatzi hilabetetan hori egiteko denborarik ez izatea.

Alkatea: agian batzordean ez dugu aipatu, baina Osoko Bilkuran galdetzen ari zaren bezala batzordean ere galde dezakezu, horretarako daude eta. Horretarako ere badaude. Eta ez dira pleguak soilik, baizik eta pleguak eratu behar dira behin jakinda lokalean eskatu behar diren betekizun teknikoak zein diren. Daukagunera egokitu, erabiltzaile berriak izan ditzakeen premietara egokitu, izan ere, ez dirudi horrela, baina oilaskoen makina izan edo ez izateak lokalak zer-nolakoa izan behar duen baldintza dezake. Dena dago elkarlotuta, ez dut gogoan zertan neurtzen den, baina tira, bada muga bat, hots, gasaren kontsumoari dagokionez potentzia jakin bat gaintzen badugu, eraikuntzaren betekizunak ezberdinak dira. Isolatu egin behar dugu, korridore bat egin behar dugu, eta gauza horiek guztiak ikusi egin behar ditugu. Sanitatea ere hemen izan da ikusteko, haiekin ere egon gara, oilaskoen makina beharrezkoa den ala ez ikusteko, ikusteko barruan jar daitekeen, kanpoan jar daitekeen, barnean egon behar duen holtz batekin, holtz hori beharrezkoa den ala ez. Hau da, ez da atera eta kito, pozik, ez da horren erraza, ez da horren simplea.

Joseba Elejalde Ribacoba: 9 hilabete.



Alkate: bada, bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: 9 hilabete, Iñigo.

Alkatea: interesa joan den urteko irailean azaldu zen.

Joseba Vivanco Retes: Dena den, ez dago plegua ateratzeko datarik?

Alkatea: lehenbailehen atera nahi dugu. Izan ere, dagoeneko inguruabar teknikoak argi erabakita daude. Hainbat bilkura egin ondotik, Sanitatearekin izan ostean, eta lokal hori dauden premietara egokitzeko dauden aukerak ikusi ondoren.

Joseba Vivanco Retes: beno, lehenbailehen izatea espero dugu.

• Joseba Vivanco Retes: beste kontu bat. Oker ez banaiz, aurreko osoko bilkuran aipatu genuen espaloien obren harira, gurpildun aulki batean dagoen pertsona batek espaloi horietatik barna Hormaza auzoraino iristeko behar zen beheraguneaz mintzatu nintzen. Idatziz sartu genuen galdera Aldundiari helarazi zitzaion. Aldundiak erantzun du, eta adierazi du Udalaren eskumena dela beheragune hori egitea. Lehenbailehen egitea eskatzen dugu, ahalik eta bizkorren.

Alkatea: bai, jakina teknikariak joan ziren ikustera, eta kontua ez da hura ez dela betetzen, kontua da ez dela SR-1 horretatik bakarra ere betetzen, uste dut.

Joseba Vivanco Retes: ez, urbanizazio horretan, edo izena duen moduan izena duela, ez da bakarra ere betetzen.

Alkatea: zuzentzen joan behar garen inguruabarrak dira.

Joseba Vivanco Retes: esku har dadila lehenbailehen.

Alkatea: baina berriro diot, ez da hori bakarrik. Egia da egon behar duela, araudiaren arabera mailan egon behar duela, hau da, ez da baimentzen dagoen aldea, ez dakit 5 zentimetro dauden hor altxaeran, baina araudiaren arabera errepidearen mailan egon behar da. Ez da tarterik baimentzen.

Joseba Vivanco Retes: baina badira, eta badira, eta hori funtsezkoa da, horrenbestez, lehenbailehen esku har dadila.

Alkatea: baina, berriro diot, ez dira horiek bakarrik. SR-1 horretatik bat bakarra ere ez.

Joseba Vivanco Retes: badakit. Eta herrian araudia betetzen ez duten espaloien antzeko 17.000 adibide ditugu, bada, pentsatzen dut lehentasunak egongo direla, eta horren arabera batean esku hartzen da eta bestean esku hartzen da. Nire ustez lehentasunezkoa da.

• Joseba Vivanco Retes: beste kontu bat, Idazkaritzako txosten baten inguruan galdetu nahi nuen, azaroaren 30 edo 31n zaharren egoitzako lokala garbitzeko kontratua amaitu zen, azaroaren 30ean. Idazkaritzako txosten baten adierazten denez "ezin da kontratu horren atzerapena edo prezioen berrikuspena adostu kontratu txiki bat delako, zerbitzuaren prestazioa 2016ko azaroaren 30ean amaitu zelarik". Nik ez dakit, erregistroan bederen, pasa bazait pasatu egin zait, baina ez dut uste beste dokumenturik dagoenik gai honekin lotuta, inolako esleipenik dagoenik, jartzen duenik garbiketarako kontratatutako Etxeko S.C. enpresari berriro esleitu zaiola, eta dakidana da enpresak gastuak pasa dituela abenduan eta urtarrilean. Nik hori jakin nahi nuen, batez ere, Idazkaritzari galdetu nahi nion behar bezala jarduten ari den kontu horretan, hala egin beharko baitzen, eta argitu dezala ea bi hilabete horietako fakturak ordaindu egin behar ditugun ala ez.

Ascensión Hormazabal Meabe: nik dakidala ez da ezer esleitu.

Alkatea: nik dakidala ere ez. Txostena ez dut ikusi.

Ascension Hormazabal Meabe: Ez zenuen ikusi?

Alkatea: 16koa?

Ascensión Hormazabal Meabe: bai.

Alkatea: ez.

Joseba Vivanco Retes: txosten hau abenduaren 2koa da, hots, hemen amaitzen da kontratua, suposatzen da, ez dakit zein den hurrengo izapidea, esleipen berria egin behar ote den, eskaintzak eskatu behar ote diren edo zuzeneko esleipena egon ote daitekeen, kontua da beren kontratua amaitu dutela, garbitzen jarraitzen dute, fakturak helarazten jarraitzen dute eta, noski, guk jakin nahiko genuke helarazi dizkiguten bi faktura horiek ordaindu behar ditugun ala



ez. Alferrik lan egiten ari diren, edo lan egiten ari diren... horrenbestez, hori argitzea gustatuko litzaiguke, egoera iruditzen baitzaigu...

Alkatea: ikusiko dugu.

Joseba Vivanco Retes: ez larria ez ezer, baina bai egoera...

Alkatea: ikusiko dugu. Edozein kasutan, egoera bitxi samarra da, izan ere, garbiketa-zerbitzua egiten ari dira asteko egun guztietan kontratu ezberdin batekin, hots, Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa. Honetatik eratorzen da Eguneko Arretarako Landa Zentroaren eta Zaharren Egoitzaren arteko baliokidetasuna. Horrenbestez asteleheneko garbiketa da, ostiralean Eguneko Arretarako Landa Zentroan jarduna amaitzen denez, eta ostiral arratsaldetan, larunbatetan eta igandetan Zaharren Egoitza modura erabiltzen denez, asteleheneko garbiketa da fakturan sartzen ari direna.

Joseba Vivanco Retes: bada izan astelehenekoa, asteartekoa edo asteburukoa, nik edozein modutara kalifikatuko nuke, baina ez bitxia. Nik ikusten dudana da kontratu bat amaitu dela, garbitzen jarraitzen dutela, fakturak helarazten jarraitzen dutela, eta hemen ez da deus esleitu, ezta hurrik ere. Bada, gai hori argitu dadila, helarazi dituzten bi hilabete horiek ordaindu behar diren ala ez. Edo norbaitek esan behar ote dion enpresari "begira, sentitzen dut, alferrik garbitu duzue". Bada ez dakit, baina argitu dadila kontua.

- Joseba Vivanco Retes: eta beste kontu bat, Alkatetzari galdetzeko, bada Idazkaritzaren beste txosten bat, urtarrilaren 19koa, bertan, eta hau ez da berria, izan ere, gogoan dut aurreko legealdian gure taldeak gauza bera adierazi ziola Alkateari, bada, kontua da 2015. eta 2016. urteetan ez Alkateak ez diruzainak ez dituztela ordaintzeko aginduak sinatu, sinatzeke daude. Beraz, berriro diot, gauza bera gertatu zen aurreko legealdian aurreko Alkatearekin, hots, bizpahiru urte zeramatzan ordaintzeko aginduak sinatu gabe, legean hala ezartzen duela pentsatzen dudan arren, guk adierazi genuen hori, sinatu egin behar zituen, bada tira, berriro oroitarazi behar da bi urte daudela Alkateak eta diruzainak sinatu gabe, eta sinadura derrigorrezkoa bada, sinatu egin beharko ditu.

Alkatea: nik sinatzen ditut. Ni ari naiz sinatzen.

Joseba Vivanco Retes: ni Idazkaritzan dagoen txostenaren arabera ari naiz.

Ascension Hormazabal Meabe: urtero egiten dudun txostena da, ordain-aginduak ez baitira sinatzen.

Joseba Vivanco Retes: bada, are gehiago nire alde.. Bada tira, sinatuta egon behar badute sina daitezela.

- Joseba Elejalde Ribacoba: kontu bakarra, Gordelizeko baltsaren inguruan, aurreko batean ikusten izan baikin, Aldunditik jakinarazi al dizute noiz hasiko diren lanak?

Alkatea: ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez litzateke soberan egongo berriro oroitaraztea, posta bat igortzea, baltsa arriskutsua dela gogoraraztea, izan ere, justu kurba batean dago, eta...

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamarrak eta berrogeita bost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.